

# EUSKARAREN HASPERENA IKUSPEGI TIPOLOGIKO ETA DIAKRONIKOTIK

Iván Igartua

EHU/UPV

1. Hasperena\* eta hasperenaren ezaugarriak sistema fonologiko ezberdinen arabera aldatzen dira, baina badituzte, hala ere, komuntzat har daitezkeen tasun ugari, eta horrexegatik da bidezkoa, hain zuzen, ñabardura ezberdinetako hots horien bitartez talde fonetiko bat osatzea (ik. Ladefoged 1982: 268). Ezaguna da, esaterako, hasperena edo beste nolabaiteko laringalizazio motak konbinaketa murriztapen jakin batzuen menpe egoten direla, hots horien hitz barneko erabilera eta hedapenari mugak jartzen dizkietelarik. Ezaguna, baita ere, hasperenak azentuaren kokagunearekiko agertzen duen lotura, hainbat sistematan haren funtzio demarkatzailearen seinale ere badena. Aipatutako murriztapenak, gainera, antzeko modu batean gorpuzten dira hitz edo erroen azaleko fonetikan, desaspirazioaren prozedura dela medio (ik. Hurch 1987, 1988: 44-48). Euskararen hasperenak ere ezaugarri hauek guztiak islatzen ditu neurri batean edo bestean eta, beraz, eman ditzakeen datuak hasperenaren tipologia batentzako baliogarriak baino ezin dira izan. Hala ere, hurrengo lerroetan pausatuko den xedea oso bestelakoa izango da, alderantzizkoa hain zuzen, euskarak datu orokor horietatik jaso ditzakeen argitasunez batez ere arduratuko baikara.

Hasperenaren erabileraren baldintzak berau ezagutzen duten egungo euskal hizkereztan argi samarrak diren arren (hein batean, behintzat), ezin da gauza bera esan historian zehar —daukagun testu-testigantzen arabera— izan duen eboluzioaz. Hitzaren muga barnean hasperen bakar bat ematen bada gaur egun, badirudi antzinatean horrelako murriztapenik ez zegoela, Akitaniako inskripzioetan edo *Reja de San Millán* delakoan ageri diren formek adierazten digutenez. Arazo honetan ere hasperenaren tipologiak ematen dizkigun datuak erabil ditzakegu hasperena mugatzen duen murriztapen garrantzitsu honen bigarren mailako aldaketa soilik izan daitekeena bere diakronian azaltzeko.

2. Baina, hasteko, datu sinkronikoetatik abiatzen bagara euskal hasperenaren deskribapen xume bat egiteko, ezinbesteko zaigu lehendabizi euskalkien araberako banaketa geografikoa zehaztea. Hasperena, fonema zein ezaugarri fonetiko bezala, ipar-ekial-

---

\* Lan hau aurreko bertsio batean irakurri duten J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra, M. Múgica eta L. M. Igartuari eskerrak zor dizkiet edukinari zein berau adierazteko moduari egindako ohar baliotsuengatik. R. Stempel ere eskertu nahi dizkior gai honen inguruko zenbait ahozko argibide.

deko euskalkietan bakarrik ematen da gaur egun, eta ez toki guztietan (ez, adibidez, Lapurdiko kostaldean eta beste zenbait tokitan: Zugarramurdi, Urdazubi, etab.). Badirudi, hala ere, badirela arrazoi historikoak hasperenak hedapen zabalagoa (hau da, mendebaldea ere ukitzen zuena) izan zezakeela —ertaroko dialektoetan behintzat— suposatzeko (ik., adibidez, jadanik aipatutako *Reja de San Millán*-ek halaxe pentsatzeko ematen dituen datuak).

Hasperenaren testuinguru fonetikoari dagokionez, lau dira (Mitxelena-aren arabera, ik. Michelena 1977a: 203) hasperenak izan ditzakeen posizioak: a) hitz hasieran, bokal edo diptongo baten aurrean (*harri*, *haur*), b) bokalen artean (*ahalke*), c) diptongo eta bokalen artean (*oihan*, *auber*) eta d) bokalen aurrean eta kontsonante ozen (*r*, *l* edo *n*) baten atzean (zub. *ürbe*, *ürhats*, *alhaba*, *senhar*). Testuinguruaren ezberdintasunak direla eta, hasperenaren kalitateak aldaera ugari izan ditzake (ahoskabe izatetik, hitz hasieran nagusiki, sudurkaritua —zubereraren bokal sudurkariaren artean, adibidez— izateraino). Kontsonante txistikari baten atzean ez da sekula ematen hasperena, ez eta jarraian aipatuko ditugun herskari hasperenduak ere (ezaugarri hau bat dator, adibidez, hizkuntza germanikoetan gertatzen denarekin: hizkuntza germanikoei dagokien Grimm-en legearen salbuespen bat da, hain zuzen, herskari indoeuroparren kontserbazioa *s*- baten atzean: i.e. \**esti* «da» > got. *ist*, i.e. \**h<sub>2</sub>ster-* «izar» (ik. gr. ἀστὴρ, lat. *stella* < *sterlā*) > got. *stairno*, goi.al.zah. *sterno*; erk. i.e. \**treyes* «hiru» > got. *preis*, ing. *three*, i.e. \**skabh-* «urratu» (lit. *skabù* «moztu dut», lat. *scabō*) > got. *skaban* «ebaki», erk. i.e. \**kērd-*, \**kȳd-* «bihotz» (gr. καρδία, lat. *cor*, gen. *cordis*, hit. (gen.) *kardiyas̄*) > got. *hairtō*, al. *Herz*.<sup>1</sup>

Bestalde, herskari hasperendunak, gehienetan alofono gisa,<sup>2</sup> ezagutzen ditu euskarak (*ph*, *th*, *kh*). Hauek ere hasperen soilak agertzen dituen posizioetan aurki daitezke eta, salbuespen bitxiren bat edo beste kenduta (ik. Michelena 1977a: 204 eta zubererazko ahoskera arinean ematen diren ahostuntze prozesuak), beti dira ahoskabeak. R. Lafonen esanetan (ik. Lafon 1973/1999: 15) herskari hasperendunak herskari soilen aldaera fonetikoak baino ez dira (“Les occlusives aspirées sont des variantes phonétiques des sourdes ordinaires”), egoera ezberdinetan eta beti ulergarri ez diren arrazoiengatik azaltzen direnak. Herskari soilen eta hasperendunen arteko harreman hauek argitzeak nahitaezkoa dirudi euskal hasperenaren azalpen ahalik eta zehatzena osatzeko. Egungo egoeran ez dirudi Lafonen azterketa onargarria denik (Mitxelena-aren deskribapenean, behintzat). Hau da: herskari hasperendun eta hasperengabeak ezin dira aldaera libretzat hartu,<sup>3</sup> ez baitira hitz eta toki berean murriztapenik gabe permutatzen (ik. Michelena 1977a: 208). Alofonia hitzak, bere aldetik, agian ez ditu bi herskari mota horien arteko erlazioak erabat argitzen (beti ez baitago jakiterik zein tokitan ematen den hasperenduna

<sup>1</sup> Danierak, Martinetek (1970: 376) dioenez, *fortes* eta *lenes* deritzen herskariaren arteko oposizioa neutralizatzen du existukariaren ostean.

<sup>2</sup> Ik. Mitxelena (1950: 192), Hurch (1987: 49). Zubererazko *okher* – *oker* «korroka» bezalako oposizioak oso urriak dira. Hasperenak bereizten dituen hitzak, berriz, ez dira hain gutxi (ik. Trask 1997: 162), horregatik nahikoa harrigarria egiten zaigu hasperena (/h/) ez aurkitzea Trask-ek proposatzen duen fonema kontsonantikoaren taulan (126. orr.). Honen kritika ik. Gorrochategui eta Lakarra (2001: 424) lanean.

<sup>3</sup> Bixtia da, hala ere, Lafonek egindako Larraineko hizkeraren azterketan oso bestelako iritzia aurkitzea: “Dans un mot donné, une occlusive sourde est toujours prononcée de la même façon: non-aspirée dans tel mot, aspirée dans tel autre” (Lafon 1958/1999: 122).

eta non hasperengabea), baina askoz egokiagoa da egoeraren berri emateko, herskariaren hasperenketak hitzak ezberdintzeko funtzio sendo bat garatzen ez duen bitartean, behintzat.<sup>4</sup>

3. Euskal hasperenaren izaera ulertzerakoan esanahi handi samarra izan dezake behin baino gehiagotan erabili izan den (euskararen kasura egokitua, jakina) Grassmann-en legeak. Grekera zaharrean eta indiera zaharrean gertatzen den bezala, hasperena ezagutzen duten euskal hizkerek ez dute hitzaren (edo erroaren) barnean hasperen edo herskari hasperendun bat baizik onartzen. Adibide klasikotzat edo eman da *hil* + *herri* > *ilherri* aldaketa hitz elkarketan<sup>5</sup> (hetskari hasperendunen arloan, aipatutako hizkuntza indoeuroparretan aditz erreduplikazioan hautatzen den desaspirazioaren norabidea berbera da: ik. sanskr. \**dhadhāmi* «ezarri» > *dādāhāmi*, gr. \**thithēmi* «ezarri» > τίθημι).<sup>6</sup> *Ilherri*-ren erregela hau betetzen ez duen adibiderik, hala ere, aurki daiteke (ik. *hilhoça*, Etxepare; *hilebethe*, Leizarraga; *illhabethe*, Etxeberri Ziburukoa), beti segurutzat eman ezin daitekeen grafiaz fido bagara, behintzat.<sup>7</sup>

Grekera eta indiera zaharrean hain ezaguna den desaspirazioa indoeuroparrak ez diren beste hizkuntza batzuetan ere antzeman izan da. Dahl-en legeak hizkuntza-talde bantuan antzeko prozesu bat orokortzen du (nahiz eta, gehienetan, kontsonante ahoskabeen ahostuntzeari dagokion, ik. Collinge 1985: 280). Dena den, \**kope* > \**kʰopʰe* > *gopʰe* «betile» bezalako adibide bantua bat letozke hizkuntza klasikokoekin.

Baina, batez ere, Ofo izeneko Sioux taldeko hizkuntzak ematen zuen Grassmannen legetik hurbilen egon daitekeen adibidea:<sup>8</sup> ik. hurrengo hitz elkarketak (de Reuse 1981: 243):

- (1) *oskafha* «the white or American egret», from *o'skha*, *o'skxa* «the crane» and *afha* «white»
- (2) *patchù'ti* «redheaded», as in *akhi'si patchù'ti* «redheaded turtle», from *a'pha*, *pa* «head» and *tchù'ti* «red».

<sup>4</sup> Ik., berrito ere, Michelena (1977a: 208): “Es cierto, en todo caso, que el rendimiento de esa oposición es extremadamente bajo y en alguna ocasión hasta nulo”.

<sup>5</sup> Euskaraz, hala ere, elkarketaren ondoriozko *hilerrri* bezalako emaitzak ere posibleak omen dira (ik. Trask 1997: 161). Dena den, *hilerrri* formak behintzat analogikoa izateko itxura osoa du.

<sup>6</sup> Grek. θίψ «ile» bezalako formetan, aldiz, desaspirazioaren ondorioa bigarren kontsonantean gertatzen da, eta ez lehendabizikoan, dagokion bezala. Honen arrazoia txistukariaren aurreko hasperendun eta hasperengabeen neutralizazioaren datza (nom. sg. \**thrih-s* > \**thrik-s*, hasperengabea delarik neutralizazioaren emaitza): egoera berri horretan lehenbiziko herskari hasperendunak ez du zertan desaspiratu beharrik (erk. gen. sg. τριχός < \**thrih-os*).

<sup>7</sup> Ik. Mitxelena salbuespenei buruz dioena (Michelena 1977a: 212): “Las excepciones, poco numerosas, se explican o porque los componentes no han llegado a perder su autonomía hasta el punto de constituir un verdadero compuesto (que es acaso lo que ocurre con *hilebethe*) o bien, más a menudo, por analogía: sul. *hilhoiz* «raide mort», etc.”. Grassmannen legea (desaspirazioaren erregela) ezagutzen duten sistema indoeuroparretan ere disimilaziorik ez da egoten hitz elkarketa gardenetan: ik. sanskr. *dhānyārtha* «wealth acquired by grain», *hastagrābhā* «hand-grasping», *yathābhāgām* «according to several portion», *bhūmigr̥ha* «having the earth as house» (Whitney 1889/1975, *passim*).

<sup>8</sup> “Ofo is an extinct American Indian language formerly spoken on the lower Mississippi. It was shown to be Siouan by Swanton (1909), who collected a short dictionary from the last speaker in 1908” (ik. de Reuse (1981: 243)). Oforen datuak, beraz, hiztegi soil horretatik atereak dira. Hauze da, hain zuzen, leku-kotasun honen alderik ahulena.

Datu hauek azaltzen dituen erregela fonologikoak honela dio, W. J. de Reuse-ren (*ibidem*) hitzetan: “A syllable of the shape *ChV* loses its aspiration when it comes to occur before another syllable of the shape *ChV*”. Ofon ere, ikusten denez, disimilazioaren norabidea regresiboa da (orain Trasken (1996: 54) *regresiboren* ordez “anticipatory” deitzea gomendatzen du, ik. baita Sihler 2000: 20), hau da, lehenbiziko silaban dagoen kontsonanteak galtzen du hasperena.

Desaspirazioa hasperena mugatzen duten murriztapenetan oinarritzen da. Quechuan ere murriztapen horiek sistemaren muinean daude eta gainera hots hasperendun zein glotalizatueta hedatzen dira. Hitz baten barruan laringalizazio motak (hasperen-keta eta glotalizazioa) ezin dira halamoduz konbinatu: hasperena (/h/) eta fonema glotala (/ʔ/) ezin dira hitz berean aurkitu; kontsonante hasperendunak eta glotalizatuak ez dira inoiz hitz berean agertzen; konbinaketa zilegi bakarria fonema laringalen (hasperena eta hasiera glotala) eta laringalizatuaren artekoa da, batzuen eta besteen artikulazio era ezberdina baldin bada (hasiera glotala duten hitzek herskari hasperendun bat eduki dezakete (ik. *urqhuy* «kanporatu, eraman», Boliviako quechuan) eta hasperena hasieran dutenek, berriz, herskari glotalizatu bat (*hamaw'a* «jakintsu»); bestelako konbinaketarik ez da). Kontsonanteen hasperenketaren zein glotalizazioaren kasuan, gainera, ezaugarri fonetikoa behin bakarrik azalera daiteke (ik. Carenko 1972: 102, 1973: 82) eta ezin dira, esan bezala, laringalizazio mota bereko bi elementu izan hitz baten barruan (hasperena eta kontsonante hasperendunen konbinaketa debekaturik dago, fonema glotala eta kontsonante glotalizatuaren artekoa bezala). Quechuaren hizkeren arteko konparaketak horren alde datu ugari ematen ditu, Carenkok (1975: 11-12) erakutsi legez: hitz barneko herskari soil bat herskari hasperendun baten bitartez ordezkatzen denean, hitz horren hasierako hasperena desagertzen da (Boliviako quechuak, adibideetan ikusiko denez, Grassmannen legearekin antz handia duen bilakaera agertzen du):<sup>9</sup>

Cuzco	Bolivia	
<i>huqari-</i>	<i>uqhari-</i>	«to lift; rise»
<i>hurqu-</i>	<i>urqhu-</i>	«to remove, take out»
<i>hatun-</i>	<i>hatun - athun</i>	«big, large»
<i>hiti-</i>	<i>ithi-</i>	«to retreat»

Murriztapen horiek ezagutzen ez dituen aimara hizkuntzetik maileguak hartzen direnean, adaptazio fonologikoa (kontsonante guztietara hedatzen dena) oso modu berezuan ematen da (ik. Carenko 1972: 101, 1973: 82):

aimara	quechua (dialektu ezberdinak)	
<i>hičhu</i>	<i>ičhu, hiču</i>	«belar, sarale»
<i>qhasqha</i>	<i>qhasqa</i>	«gogor, zabar»

<sup>9</sup> Ik. halaber grekeraren historian aurki daitezkeen hitz zenbaiten aldaerak (azken emaitzek beti hasperen edo herskari hasperendun bakarria dutela, hala ere): \**ἡερόζ* «sakratu» > \**hεερόζ* > *εερόζ*, erk. ind. zah. *isira-* (ik., hala ere, Schwyzer 1977: 219-220), edo grek. *αῦοζ* «lehor» (erk. lit. *sausas* «lehor», esl. zah. *suxъ* «idem») < \**auhos* < \**hauhos* (honetarako ik. baita Meyer 1896: 326). Beste kasu batzuetan, hitz elkartuetan bereziki, hasperenak hitzaren lehenbiziko silabara jartzeko joera agertzen du: *προ-όρά* > *φουρά* «goardia, zaintza», *προ-όδόζ* > *ροπούδοζ* «desagertua, hutsala» (ik. Sihler 1995: 173).

Hasperenaren eta glotalizazioaren portaera komuna<sup>10</sup> modu honetan azaltzen du Carenkok (1975: 12): “Apparently, both aspiration and glottal occlusion, being distinctive features of consonant phonemes, in this case behave identically, and one can present these two laws as particular occurrences of one general law: within a word, the presence of only one laryngealized consonant phoneme is possible”. Aipatu bezala, laringalizazioari orobat ezartzen zaizkion murriztapenak hasperenari dagokionean ere modu garbian gauzatzen dira: “aspiration can appear in a word no more than once, independently of whether it appears as a segmental phoneme or as a distinctive feature of a consonantal phoneme”. Ausardia handirik ez da behar azken hitzok euskal hasperenaren egungo egoerari ere legozkiokela esan ahal izateko.

Tankera honetako prozesu fonologikoak (Grassmannen legea eta bere aldaerak, hasperenaren eta herskari glotalizatuaren konbinaketan mugak quechuan eta hizkuntza kaukasiarretan, beste adibide bat jartzearen)<sup>11</sup> artikulazioaren denboraren araberrako antolaketaekin lotuak egongo lirateke fonologilari naturalen ustetan. Doneganek eta Stampek (1978: 33) adierazten dutenez, kontsonante jakin batzuen berrartikulazioak silabaren barnean galarazita leudeke iraupen edo denbora mugak direla medio (*timing constraints*).<sup>12</sup> Artikulazioaren erritmoa, hau da, silaba tipikoen ahoskerak ezarri ohi duen erritmoa da, haien esanetan, behar baino denbora gehiago kontsumitzen duten kontsonanteen artikulazio bikoitz horiek baztertzen dituen faktore prosodikoa.

Euskal hasperenaren kasuan muga hauek erro edo hitz osoaren eremuraino zabaldu beharko genituzke, gertatzen denaren azalpena ezaugarri horretantxe bilatu nahi baldin badugu. Hala ere badirudi badela arrazoirik bestelako esplikazioak bilatzen saiatzeko: hasperena edo herskari hasperendunak hitzaren lehenbiziko bi silabetan bakarrik ager daitezke. Mitxelenak 1951n formulatutako erregelak honela dio: “*en palabras que tienen más de dos sílabas, la oclusiva inicial de la última sílaba no es nunca aspirada*” (ik. Michelena 1951a: 214). Era horretan adierazita, erregela edo murriztapena hiru silabatako hitzen egiturari dagokio soilik. Zehatzagoa litzateke esatea hasperena oro har ez dela bigarren silabaren hasieratik (*onset* delakotik) haruntzago ematen (“The aspiration can occur no later than the onset of the second syllable”, ik. Trask 1997: 158).<sup>13</sup> Partizi-

<sup>10</sup> Aimaratik bi herskari glotalizatu duten hitzak iristen direnean, disimilazio prozesu bera garatzen da: ik. aimara *r'ant'a* «ogi» > quechua *r'anta* (Carenko 1973: 82).

<sup>11</sup> Muga horiek silaba barneko kontsonante glotaliko (eiekitibo) heterorganikoei ere dagozkie. Posible dira, aldiz, jatorrizko hitz kartvelikoetan bezala, C<sub>1</sub>VC<sub>2</sub> egiturako silabak, non C<sub>1</sub> eta C<sub>2</sub> fonema bera diren (ik. Gamkrelidze eta Ivanov 1984: 18, 1995; hala ere, Job (1995) lanean ustezko muga horien aurkako datuak ematen dira). Beste hizkuntzetan, maya, quechua eta hausa (Chad) tarteko, glotalizatu bakarria onartzen da silaba batean.

<sup>12</sup> Ohar gaitezen, dena den, Doneganek eta Stampek ere aipatzen duten Grassmannen legea ez dela silaban bakarrik betetzen, baita eremu zabalago batean ere (ik. erreduplikazioen adibideak). Badirudi, laringalizazioaren kasuetan (hasperena zein glotalizazioa), hitzari, bere osotasun fonetikoan, dagokion gertaera baten aurrean gaudela: ik. Carenko (1975: 13-14): “The instability of laryngeal articulations, their mobility, and most significant, their single occurrence in a word lead one to the idea that laryngealization (...) characterizes not only consonant phonemes, but also whole words”. Ik. baita glotalizazioaren zein hasperenaren ikuspegi prosodiko bera Klyčkov (1989: 127) lanean.

<sup>13</sup> Ik. Gorrochategui eta Lakarra (2001: 425): “Si tenemos vasc. *lehoi(n)* en vez de \**leohe* (< *leone*) o vasc. *hareza* «arena» en vez de \**areha* (< *arena*) se debe sencillamente a que en época medieval, a partir del s. XI-XII se extendió en la lengua una regla que impedía la aspiración a partir de la tercera sílaba”. Beherago ikusiko den bezala, mailegu horiek latinean zuten azentuak zerikusirik izan zuen, seguraski, hasperenaren sorreraren

pioetako atzizkiek erakusten duten banaketak zehazki islatzen du aipatutako erregelaren edukina: *dei-thu* eta *sar-thu* bezalako formen ondoan *ager-tu* ahoskera daukagu, hasperenik gabea (ik. Michelena 1951a, *ibidem*). Murriztapen berak antolatzen ditu beste hitz batzuen arteko erlazioak: erk. *gauherdi* vs. *eguerdi*, edo *lokhartu* vs. Axularren *lohartu* (Michelena 1977b: 328).<sup>14</sup>

Hala ere, eta orain arte esandakoaren balioa ukatu gabe, disimilazioaren norabidea euskarazko hainbat adibidetan deskribatutakoaren aurkakoa izango litzateke, Mitxelena ohartarazi bezala (ik. Michelena 1950: 192, 1951a: 217): herskari ahoskabeez osatutako hitz sinpleetan (elkartuak ez direnetan) lehenbiziko herskaria izan ohi da hasperenduna, eta ez bigarrena (adibide gehienak maileguak dira):

Al parecer, el suletino muestra una tendencia a la pronunciación aspirada de esas consonantes [hetskariak] y, cuando hay dos oclusivas sordas en la misma palabra, sólo es aspirada la primera: *khürütxe* "cruz", *Pheti(ri)* "Pedro". Se observa, desde luego, en este y otros casos (¿excepto en algunos compuestos?), una rigurosa "Hauchdissimilation" semejante a la tan conocida en griego antiguo (Michelena 1950: 192).

Aipatutako beste lanean (Michelena 1951a: 217), zubereraren ezaugarri hau modu zehatzago batean, eta xehetasun gehiagorekin, deskribatzen da:

Quando en la misma palabra hay dos oclusivas sordas situadas ambas en posición en que la pronunciación aspirada es teóricamente posible, si una es aspirada, lo es siempre la primera.

Ik. baita zubereraz *kholkho*, *phüntü*, *pharka(tü)*, *pharti(tü)* (Michelena, *ibidem*), *khorpuz*, *phike*, *phiper*, *khate*, *thiti* (Trask 1997: 160). Bestelako baldintzetan, hau da, lehenbiziko kontsonantea ez bada herskari ahoskabea (edo hasierako kontsonanterik ez bada), hasperenduna bigarren silabako herskaria izan ohi da: ik. *bethe*, *bethi*, *bikhe*, *dithi*, *zathi*, *lekhu*, *bothere*, *muthil* (*artho*, *aurthen*).<sup>15</sup> Herskari hasperendunen banaketa honek antzinako azentuarekin izan dezakeen lotura beheaxeago aztertuko da, baina momentuz esan daiteke *thiti* / *dithi*, *khate* / *gathe* edo *phike* / *bikhe* (ik. Michelena 1974:

edo galeran (*ohóre* < (*h*)*onóre* vs. *baléa* < *balléna*). Harea-ri dagokionez, hasierako hasperenak oso bestelako jatorria zuela uste dugu (ik. Michelena 1977a: 209 eta hitz hasierako ahoskera sendoaz han esaten dena) eta \**areha* forma bitxi horretatik, noizbait izan baldin bada ere, ez dirudi eratorria denik. Aipatutako beste formaren kasuan, hasperenaren garapena azentuaren kokagunearen menpe dagoela (*leóna* > *lehóna*) esan daiteke arrisku handirik gabe (-*one* > -*oi* aldaketarako ik. Múgica 2000: 400-402).

<sup>14</sup> Ik., dena den, salbuespenen bat egungo zubereran: *artolha*, *sarjalkhi* (biak hitz elkartuak, bigarren oinarriaren hasperena mantentzen dutenak), *a(r)akhói* (atzizki azentudunaz) eta *baranthaila* «otsaila» hitz etimologikoki oraindik azaldu gabea, Trasken esanetan (ik. Trask 1997: 158). Erk., ordea, Michelena (1974: 218): "Para otro nombre menos difundido, BN *barandalla*, S *baranthalla* «febrero» se ha propuesto una explicación satisfactoria por el lat. *parentalia*". Ik., halaber, *Appendix Probi*-k gaitzetsiz bat jasotzen duen adibidea: "*parentalia* non *parantalia*", *App. Probi*, 183.

<sup>15</sup> *Hartu* eta zub. *heltü* partizipioak "late formations" izan daitezkeela dio Traskek (1997: 160). Horri buruz ik., lehenago, Michelena (1977a: 214). *Hartu* formaren kasuan, behintzat, kontuan izan behar dira B. Etxeparengan aurkitzen diren *haritu* formaren lau agerraldiak, J. Lakarrak gogoratu didan bezala (ik. adibidez, *Harc eryo haritu dic leyan vicia*, edo *Eta exayac didan pena pacientqui haritu*). Ik. halaber *zuritu*, *gatzi-tu*, bizk. *otziitu*, eta *saldu* vs. *sar-i-tu*. Herskaria hirugarren silaban ematen denez, ez du hasperenik jasotzeko aukerarik, lege orokorraren arabera.

200) bezalako bikote esanguratsuek, nahiz eta beren jatorria garai ezberdinetakoa izan, hasperenketaren balio alofonikoa, diakronian behintzat, garbi adierazten dutela: herskari ahoskabeak hasperendun edo hasperengabe bezala gauzatzen dira testuinguruaren arabera.

Nolanahi ere, garrantzizkoa da, euskararen herskari hasperendunen izaera argitzera-koan, hitzen estratu kronologikoak bereiztea (horretarako ik. Michelena 1977a: 217). Hitz zaharrenak (jatorrizkoen zein maileguen artean) hasierako herskari ahostuna dutenak dira: *begi*, *gizon*, *bide* (< *via de* (Oiarso)), *bikhe*, *bekhatu*, *gathe*, *gerezi*, etab. Estratu lexiko berriagoren baten barnean leudeke hasierako herskari ahoskabea (eta beraz, hasperenduna) dutenak: *phike*, *thiti*, *khorpuz*, *khate*, etab. Oro har talde honetako adibide guztiak mailegutzat hartu ohi dira, baina badira latina edo erromantzetik garatu bide ez diren hitzak ere: zub. *phitz*, *thii*, *khe*,<sup>16</sup> *khent* (ikusten denez, forma hauetan hasierako herskari bilakaera (\**Ch*- > *h*-) ez da bete, beraz pentsatu beharko da, hipotesirik ekonomikoenean, euskal lexikora aldaketa prozesua amaitu ondoren heldu zirela). Eta azkenik, hitz berrienak, sistemaren fonologiara gutxien egokitu direnak, hasierako herskari ahoskabe eta hasperengabea agertzen dutenak dira (*pekatu*, *populu*, *testamentu*, *kamelu*). Zenbait kasu herskari ahostun baten ahoskabetzearen ondorioa ere izan daitezke (*butzu* > *putzu*). Estratu bakoitzak bere modura baldintzatzen du hasperenketaren banaketa, baina badirudi garai guztietan (agian estratu berriena salbu) betetzen direla hasperenaren funtzionamendua arautzen duten erregela nagusiak. Hitzen arteko bereizkuntza kronologikoak esanahi handia izango du azentuaren inguruko hipotesiak era dinamiko batean baloratzeko orduan (ik. *infra*).

Danieraren *fortes lenes* herskariaren portaera ikertzerakoan, A. Martinet (1950: 227, 1970: 376) posizio sendo eta ahulen arteko ezberdintasunetik abiatzen da: *fortes* direnek hasperena jasotzen dute posizio sendoetan soilik, ahuletan, aldiz, ahoskabe soil bezala gauzatzen diren bitartean.<sup>17</sup> Danierari aplikatutako azterketa euskararen ezaugarrietara egokituz,<sup>18</sup> esan genezake posizio sendoetan herskari ahoskabeak hasperendunak izango liratekeela eta posizio ahuletan, berriz, hasperengabeak. Gauzak horrela, kontua da, euskararen kasurako, zeintzuk diren posizio sendo eta ahulak (eta zein garaitan) ar-

<sup>16</sup> Hitz honen jatorri espresiboari buruz ik. de Rijken iruzkinean (1963/1998: 4-5) adierazten diren zailtasunak.

<sup>17</sup> Posizioak zehazterako orduan egileak honako hau dio lanaren bertsio batean zein bestean: "Par position "forte" il faut entendre essentiellement, dans le vocabulaire proprement danois, l'initiale du mot et celle du syllabe accentuée. Par position "faible", la position devant voyelle inaccentuée" (Martinet 1950: 227).

<sup>18</sup> Transferentzia honen onargarritasunak tipologian soilik aurki lezake oinarria, baina kontuan hartuz aitzineuskararen kontsonantismoa *fortis lenis* oposizio baten arabera antola daitekeela (ik. Michelena 1957: 186), danieraren informazioa are egokiagoa litzateke. Kontsonante *fortes* eta *lenes*-en berreraiketa zalantzan jarri zuen Traskek (1985), haren ordezkontsonante soil eta geminatuen hipotesia proposatzeaz bat, baina azken lanean (Trask 1997) Mitxelena bertsio klasikorak itzuli da (ik. eztabadairan xehetasunak Hurch (1991) lanean). Bestalde, eta argudioak behin baino gehiagotan eztabaidagarriak diren arren, Hualdek (1997a) *fortis lenis* oposizioaren bestelako irakurketa bat proposatu du, hitz hasierako herskariaren neutralizazioa eta sintagmatiko batean azalduz. Ikuspegi honetatik aitzineuskaratik egungo euskalkietara ez legoke funtsezko aldakuntzarik. Egileak zalantzan jartzen duen eboluziorako (*fortis lenis* > *ahoskabe* / *ahostun*, Mitxelena teoriarik beharrezkotzat eman izan dena eta Martinetek (1950: 231) dagoeneko erromantzearen eraginez azaldu zuena) bada, hala ere, adibideren bat (ik. Kasatkin 1995/1999 aitzineslaviera eta errusiar zaharren gainean).

gitzea (ik. beherago). Orain arte esandakoa beste era batera laburbilduz, hasperenketa herskari ahoskabeen osagarritzko artikulazio bat bezala aurkez daiteke, testuinguru jakin batzuetan azaleratzen edo ezabatzen dena. Hasperenaren ezabaketa orain arte aztertu-tako disimilazioaren ondorioa litzateke, sistemak ez baititu onartzen bi hasperendun hitz bakar batean.

4. Maiz azpimarratu izan den bezala, hasperenaren erabilerak azentuarekiko menpekotasun nabarmen eta zuzena erakusten du zenbait kasutan. Nahikoa litzateke zub. *néke* — *nekhátü* (Leizarragaren grafian *neque* — *nekatu*) bezalako bikoteak aipatzea adibide gisa. Kasu honetan ikusten denez, maileguren tratamenduak argi uzten du azentuaren eta hasperenaren arteko lotura hori: zub. *jókü* — *jokhátü*, lat. *virtute(m)* > *berthúte*. Hasperena bokal azentudunaren aurrean agertzen da adibide guzti hauetan. Herskari ahoskabea bokal azentudunaren atzean kokatua baldin badago, kontsonante horrek ez du hasperenik garatzen: ik. *báke*, *mérke*, *jákin*,<sup>19</sup> *mútu*.

Orain arte erabili ditugun adibideek beste zerbait ere erakusten dute: euskal herskari hasperendunak ez dira beste aitzin fonemen edo fonema arrotzen bilakaera berezia, ez da beraz kontserbazioaren edo galeraren kontua, arazoa ez baita, hitz hasierako aitzin herskari ahoskabeen kasua (\**Ch* > *h*) salbu, zuzenean etimologikoa.<sup>20</sup> Sarritan aurrean duguna, aldiz, hasperenaren garapena da lehen ez zegoen tokietan (ik. lat. *virtute(m)* > *berthute*). Eta garapen berri eta erregular honen berezitasuna hain zuzen azentuaren kokagunearekin izan dezakeen erlazioan datza. Mitxelenak (ik. Michelena 1957-58: 234) dioenez:

la fréquence de l'aspiration y est assez élevée pour que la conviction s'impose qu'il existait un facteur, présent au début de certaines syllabes, absent dans d'autres, qui portait en soi la possibilité de produire une aspiration. L'identification de ce facteur inconnu avec un fort accent expiratoire n'est certes qu'une hypothèse, mais elle semble se recommander par sa simplicité tant qu'elle ne va pas à l'encontre des autres données du problème.

Arazo honetan ere, eta gehienetan bezalaxe, garrantzitsuenak barne irizpideak diren arren, hizkuntzen arteko konparaketak lagungarri suerta daitezke. Azentuaren eta hasperenaren lotura ingelesak argitzen du modu ezin hobea batean: ik., adibidez, [*kh*]ón-gress eta [*k*]ongrésional ahoskeren arteko ezberdintasuna (Donegan eta Stamperen (1978: 27) arabera; ik. baita Hualde (1997a: 413) *prohibit* (hasperenduna) eta *prohibi-*

<sup>19</sup> *Jakin* aditzaren kasuan hasperena eragotzita legoke aitzin forma \**eakin* bazen, herskaria hirugarren silaban kokatua egongo litzatekeelako (ik. Michelena 1977a: 119, 408; Trask 1997, 161). Mitxelenak (ik. Michelena 1951a: 215, 1957-58: 234) bestelako azalpenak proposatzen ditu, oinarria analogia prozesuetan eta azentuaren kokagunean dutenak.

<sup>20</sup> Hasperena etimologikoa da, ordea, hurrengo kasu hauetan oinarrituta dagoenean: a) aitzineuskararen hasperen bat duenean aitzindari gisa, b) latinaren hitz hasieraren *f* baten eboluzioa denean, c) bokalarteko *-n* baten aldaketaren ondorioa denean eta d) hitz hasierako kontsonante ahoskabe edo *fortes* deritzenen bilakaera denean (Michelena 1977a: 208). B. Hurček (1988: 129) bildutako informazioaren arabera, c) kasua arras bitxia da hizkuntzen tipologian. Hasperenaren banaketak agertzen dituen irregulartasunek zorabiatu izan balu bezala, Traskék (1997: 159) erabat ahazten ditu, deuseztuz, hasperenaren iturburu etimologikoak eta, bide batez, egiten duen analisiari erabilgarritasuna kentzen dio (ik. Gorrochategui eta Lakarra 2001: 425).



*tion* (hasperengabea) formei buruz).<sup>21</sup> Azentuarekiko hasperenak duen lotura tipologikoki aztertu ondoren, B. Hurchek (1987: 38), I. Lehisteren lanetan oinarriturik, honako ondorio hauek ateratzen ditu: “the amount of airflow during the production of [h] is six times the airflow during the production of the following syllable nucleus; a stressed syllable is generally produced with a greater amount of articulatory energy than an unstressed (reduced) syllable and therefore more readily bears aspiration” (ik. baita Hurch 1988: 45).

Euskal azentuaren ikerketa saioetan bi dira proposamen klasikoak, bata A. Martintena, bestea Mitxelenak egin zuena. Hipotesi biak, aitzin azentuaren kokaguneari buruzkoak, hasperenaren —edo zehatzago izatearren, herskari hasperendunen— banaketak erakusten dituen datuetan oinarrituta daude. Ondorioak, ordea, ez dira berberak. Martineten (1981) ustez, azentua hitzaren lehenbiziko silabari zegokion eta horrek esplikatu luke lehen aipatutako ezaugarria: elkartuak ez diren hitzetan, eta herskari ahoskabez osatuta baldin badaude hitzaren silabak, lehenengo silaban agertzen da hasperena (*phike, phiper, kholka, khanti*).<sup>22</sup> Hipotesi honen arabera azentuak balio demarkatzailea izango luke neurri handi batean, hau da, hasperenak —*fortitio* mota bezala— silaben (edo hitzen) arteko mugak azpimarratzen zituen, Martinetek esandakoari eusten bazaio.<sup>23</sup> Baina adibide gehienak, guztiak ez badira (ik., dena den, \**kaRi* > *harri* bezalako bilakabide zaharrak), maileguak direla kontuan izanik, Martineten orokorpena aitzineuskarari ez dagokiola ondorioztatu beharko da. Hala ere, teoria honek baditu interesgarri suerta daitezkeen beste alderdi batzuk: hitza osatzen duten silaben ahoskera gradazio nabarmen baten barruan ematen da (*falling accent* duten hizkuntzen tipologia-rekin bat letorkeen ezaugarria.<sup>24</sup> ik. Donegan eta Stampe 1983: 342): “Ceci suggère

<sup>21</sup> Maya hizkuntzen herskari glotalizatuekin (gaztelerez “letras heridas” deituak izan direnekin) halako loturaren bat ere nabaritzen omen da: ik. *khiero, tthanto* (idazkera ez da fonetikoa) edo *sak'è, k'al* (haien ondoan baita *k'asé* edo *t'erreno*) bezalako adibideak duela gutxi joan zaigun R. Lapesaren (1981: 551) lanean. Aitzinmayaren sistema fonologikorako ik. Campbell (1990: 116).

<sup>22</sup> Badira, nolana ere, legearen aurkako salbuespentzat jo izan diren adibideak, *pikhatzeko* edo *kokha* «etzan» bezalakoak (ik. Hualde 1995: 172).

<sup>23</sup> Funtzio edo balio demarkatzailea da, hain zuzen ere, hizkuntza indoeuroparretan Grassmannen legeak betetzen zuena, ikuspegi glotalikotik egindako haren berrinterpretazioaren arabera (ik. Salmons 1991: 49-50). Teoria glotalikoaren barnean herskari hasperendunak eta hasperengabeak elementu alofonikoak dira eta ez fonemak: horrek errazten du, besteak beste, alofono hasperendunen erabilerak erakusten duen funtzioaren azalpena. Grassmannen legearen irakurketa glotalikoa da Iversonek (1985) proposatzen duena ere. Estreina aldiz interpretazio alofonikoa Gamkrelidzeren (1981) lanean defendatu zen, gero Gamkrelidze eta Ivanoven (1984, 1995) monografiari islatu eta zabalduko zena.

Bestalde, quechuan ere badirudi funtzio demarkatzailea dagoela funtsezkoenen artean: “segmental aspiration and glottal occlusion serve as signals for the beginning of a word, and aspiration and glottalization of consonants are additional means of delimitation of roots and affixes, inasmuch as they can occur only in roots” (ik. Carenko 1975: 14).

<sup>24</sup> *Falling/rising accent* izeneko tipologia Donegan eta Stamperen (1983) lanean proposatzen da, munda eta mon-khmer hizkuntzen datuetan batez ere oinarriturik. Bereizketa horren arabera, hizkuntza bakoitzaren eredu erritmikoa (*rhythmic pattern*) da sistema osoaren egitura era harmoniko batean antolatzen duena. Hitzaren eta esaldiaren azentua hasierakoa denean (*falling*), hitz ordenak SOV izateko joera agertzen du, sintaxian postposizioak, kasuen erabilera eta aditz komunztadura dira nagusi. Azentua, aldiz, bukaerakoa baldin bada (*rising*), hitz ordena SVO izan ohi da, eta preposizioak erabiltzen dira, beste ezaugarrien artean (ik. Donegan eta Stampe 1983: 337). Bokalen fonologian, *falling accent* tipologia duten hizkuntzetan bokalen arteko harmonia nabaritzen da, *rising accent* motako sistemek bokalen laburtze prozesuetarako (*ibidem*: 348) tendentzia erakusten duten bitartean. Datu hauek ikusita eta oposizio honi eutsiz euskara sailkatu behar bagenu, ez da zaila asmatzea tipologiaren zein muturretan kokatuko litzatekeen.

qu'un vocable hypothétique \*/k<sup>h</sup>ak<sup>h</sup>ak<sup>h</sup>a/ s'articulait en fait \*[khak<sup>h</sup>aka], avec une aspiration dévorante dans la première syllabe, une aspiration moyenne dans la seconde et une aspiration pratiquement inaudible dans la troisième" (Martinet 1981: 68).<sup>25</sup> Egileak espreski aipatzen ez duen arren, ahoskera energiaren gradazioak (gehiagotik gutxiagora) hasperenaren beste ezaugarri baten azalpena emango luke bide batez: hau da, zer-gatik ez den hasperenik aurkitzen hitzaren bigarren silabatik haruntzago.

Mitxelena hipotesian azentu zaharra hitzaren bigarren silaban kokatu beharko litzateke (finkotasun horrek ere balio demarkatzailea emango zion orduko azentuari, Martineten hipotesian gertatzen den bezala). Bere alde mailegu zaharrenean datuak eta sudurkariaren bilakaera (hau ere azentuaren arabera ezberdintasunekin)<sup>26</sup> ditu. Bestalde, hasperena inoiz ez da aurkitzen bigarren silabatik haruntzago. Berezitasun honentzako galesaren bilakaerak ematen du, tipologiaren aldetik, adibide ezin hobea:

Nuestra hipótesis se inspiraba en hechos bien conocidos de la historia del galés. En esta lengua, en efecto, cuando el acento pasó de la última (antigua penúltima) sílaba a la penúltima, cayeron las *h* del galés ant. que se encontraban detrás de la nueva vocal acentuada. Suponiendo que la analogía fuera completa, se llegaría a la conclusión de que las palabras vascas se acentuaron antiguamente en la segunda sílaba (ik. Mitxelena 1977a: 406)<sup>27</sup>

Bada, hala ere, arazoren bat. Hasperenaren agerraldia azentuaren eraginpean baldin badago —eta azentua bigarren silaban ematen bada— ez du azalpen posiblerik *hiri/huri*,<sup>28</sup> *herri* (ez bada < \**keRi*) edo *hartu*<sup>29</sup> bezalako hitzetan sumatzen den hasperenak, hitz hasierako hasperenak, alegia (ez baitirudi erraza denik hasperen hori herskari zahar baten bilakabidearen bitartez esplikatzea, *harri* (\**kaRi*), *hemen* (\**keben*) edo *hau* (\**kau*) erakuslearen kasuetan ez bezala).<sup>30</sup> Bi irtenbide bila daitezke, Hualdek (1995:

<sup>25</sup> Prozesuaren azken urratsa \*[hak<sup>h</sup>aka] ahoskera litzateke Martineten teorian. Hitz hasierako herskariaren aldaketa honek ("[k<sup>h</sup>] > [x], avec affaiblissement ultérieur en [h] de la spirante ainsi obtenue") eta, oro har, hipotesiaren muinean dagoen artikulazio energiaren hierarkiak, euskal aditz morfologian ematen den alternantzia bitxi bat modu nahiko sinesgarri batean esplikatuko lukete: *haiz(hi)-duk* (*h*- hasieran, -*k* bukaeran), *zara-duzu*, *gara-dugu*, etab. formetan islatzen den erlazioaren antzekoa bada behintzat —normalean onartu ohi den bezala— aipatutako hiketa aditz forma horietan antzematen dena (*duk* formaren aitzindari gisa, hala ere, \**duga* proposatu izan da; Mitxelena, dena den, *duk* eta *duan* formen arteko erlazioa aintzat hartuz, \**du.a* zehaztu gabeko aitzin forma du nahiago; dena den "Podría pensarse también en principio, con muchas salvedades, en *h*: cf. *hi* «tú»" (Michelena 1977a: 236)). Martineten ikuspuntura itzuliz, ezinbestekoa da gogoratzea lehenagoko lan batean (Martinet 1970: 385), eta *akher* bezalako hitzen egitura azaltzeko, \**khak<sup>h</sup>aka* > \**bakhaka* > \**akhaka* bezalako bilakabide bat proposatzen zuela. Disimilazioak hasierako hasperena ezabatu zuen honen arabera, nahiz eta kokagune hura izan hasperenak zuten posiziorik sendoena.

<sup>26</sup> Sudurkaria silaba azentudunean bazegoen, eguno hitzek hasperena dute haren ordezt (\**onóre* > *ohóre*, \**anáte* > *aháte*). Silaba postonikoan, berriz, sudurkaria ez da hasperen bilakatzen (*balléna* > *baléa*, \**ardáno* > *ardáo*, *ardú*). Bilakaeraren ezberdintasuna, hala ere, beste modu batera azal daiteke: izan ere, hasperenik gartzatzen ez duten hitzek, adibideetan behintzat, hirugarren silaban zuten kokatuta sudurkaria. Dena den, ik., salbuespen urrien artean, zub. *bábe* «crible» (< rom. *van*), non hasperenaren garapena, dirudienez, azentuaren ostan eman den (ik. Michelena 1957-58: 237).

<sup>27</sup> Ik. gal. zah. *brenhin* «errege», *brenhined* «erregeak» eta gal. ert. *brénin* «errege» vs. *brenhinoedd* «erregeak» (J. Gorrotxategik emandako adibidea).

<sup>28</sup> Batik-bat *ili-* iberikoarekin (ik. *liberris*, *Iluro* bezalako toponimoak) zerikusirik baldin badu.

<sup>29</sup> *Hartu* aditzaren aldaeren gaineko datuak ik. 15. oharrean.

<sup>30</sup> Adibide hauek Martineten (1981) hipotesiaren muinean daude.

175) uste duenez. Bata da Mitxelenak berak (ik. Michelena 1977a: 409-410) aurkitu zuena, azentuaren eta hasperenaren arteko lotura batean hertsia leunduz. Silaba azentudunaz aparte, hasperena beste posizio sendoetan ere ager daiteke: horien artean posizio nagusia hitz hasierakoa, azentuduna nahiz azentugabea, litzateke.<sup>31</sup> Maileguetan beranduago ere indarrean segituko duen joeraren adibide ugari aurki daitezke (Michelena 1977a: 209): ik. *harma* < lat. *arma*, *harea* < lat. *arena*, *harnapatu* < errom. *arrapar*, *hezkabia* (lat. *scabies*), *harroka* (ik. baita Traskek (1997: 159) hasperenaren legerik ezaren adibideen artean kokatzen dituen formak: *haizkora* < lat. *asciola*, *hautatu* < lat. *ap-tare*).<sup>32</sup>

Beraz, azentuaren kokagune finkoaren hipotesia ukatu gabe, Mitxelenak beste iturburu bat onartzen du hasperenarentzat. Gogora dezagun latinaren historiaurrerako hitz hasierako silabaren azentuaz gain (ikertzaile guztiek onesten ez duten teoria), silaba horren ahoskera zaindu eta arduratsu bat ere, latinaren hitz barneko bokalismoaren aldatetak esplikatu ditzakeena, berreraikia izan dela (ik. Bassols de Climent 1983: 43). Beste adibide tipologiko bat aipatzearen, Cuxco-ko quechuan hitzaren ordenan lehenbiziko herskariak dira laringalizazioa jasotzen dutenak (hasperena edo glotalizazioaren bidez), beraz herskariz hasten diren hitzetan hasperena beti agertzen da lehenbiziko silaban eta hitz hasieran (quechua, ondorioz, *falling accent* izeneko tipologia duten sistemen artean kokatu beharko genuke). Esandakoaren arabera, aitzineuskarak bi posizio sendo eduki zitzaizkeen bokal aurreko herskari ahoskabeak hasperentzeko (edota hasperena bera, fonema gisa, ager zedin): silaba azentudunarena eta hitz hasierakoa.<sup>33</sup> Tipologiak dakartzigun datuak bat letozke berreraikitako ezaugarri honekin.

Beste irtenbide bat, beti ere Hualderi jarraiki, azentuaren kokagunea ez zela erabat erregularra suposatzea izango litzateke. Azentua, oro har eta erabil daitezkeen datuen arabera, nagusiki bigarren silaban ematen zen arren, lehenbizikoan ere ager zitezkeen: "This naturally implies that at an even earlier stage there was some feature, which we can no longer reconstruct, that determined whether stress fell on the first or the second syllable" (Hualde 1995: 176).<sup>34</sup>

Nolanahi ere, desaspirazioaren arazora itzultzen bagara, Mitxelenaren hipotesiaren ikuspegitik badirudi ondo ulertzen dela hitz elkarketan ematen den disimilazio regresiboa: *ilhérii*, *ürhéntü* «ahitu» (*hur-* da lehenbiziko erroa). Bigarren morfemak du azentua (hitz elkarketetan bigarren elementuak jaso ohi baitu indar gehien) eta horregatik mantentzen du hasperena. Baina egin berri duguna azaleko irakurketa da neurri handian.

<sup>31</sup> Ik. baita Martinet (1970: 374): "l'initiale est la position de différenciation maxima. Ceci se comprend bien, car l'explosion est naturellement plus nette que l'implosion, et la consonne initiale et moins exposée que la consonne intérieure à être modifiée par le contexte".

<sup>32</sup> *Harma*, *harea* bezalako adibideekin bat letozke R. Menéndez Pidak Azkuerengandik hartutako formak, hauek ez balira bizkaiera zaharraren arau grafikoan ondorioa baino: "el P. Azkue cita voces del antiguo vizcaino en que aparece la *h*, como *hulertu*, *hurriete*, *hule*, etc., aspiración caduca, pues coexistían *on y hon*, *oiñ y hoiñ*" (ik. Menéndez Pidal 1923/1962: 69).

<sup>33</sup> Begibistakoa da posizioei dagokienez danieraren sistema fonologikoak oso adibide tipologiko hurbila osatzen duela.

<sup>34</sup> Mitxelenak maiz aipatzen dituen erregularitasunaren aurkako formak (*ákher*, *lékhü*) zubereraren azentu aldatetaren bidez azaltzen dira (*akhérra* > *ákher* (\**akhéR*), *gizúna* > *gizun* bezala). Azentuaren kokagunearen berrinterpretazioa atzekoz aurrera egin da zubereraz (ik. Michelena 1977a: 423, Hualde 1995: 177), hau da, azkenaurreko silaba da azentua daramana.

Ezin da ahaztu elkarketa horietan bigarren morfemako (edo morfema-taldeko) lehenbiziko silabak daramala azentua. Gauzak horrela, badirudi Martineten teoriatik hurbilago egon gaitzkeela hemen ere (hizkuntzalari frantsesaren azalpenak —hipotesi ekonomikoago baten barnean— disimilazioaren norabide biak bateratzen ditu, arazoaren alderdi guztiak azentuaren eta hasperenaren arteko harremanaren eskuetan utziz).<sup>35</sup>

Baina Martineten hipotesiaren arazoa, beste ikuspegi batetik, egileak erabiltzen dituen datuetan datza, horietatik gehienak maileguak baitira eta ezin baita, horren ondorioz, berreraikitzen diren prozesuak aitzineuskararen egoerarekin zuzenean lotu. Are gehiago, Martineten hipotesiaren barnean maileguek duten itxura ez da zaharrena, bai zik eta berriena (*phike* vs. *bikhe*). Arrazoi honengatik eta hitz elkarketak (*ilhérri* bezalakoak, behintzat) nahikoa berriak izan daitezkeela kontuan hartuz, bi hipotesien arteko erlazio kronologikoa Mitxelenak (ik. 1951b: 208) uste zuenaren aurkakoa bezala aurkez liteke: bigarren silabako azentuak (eta posizio horretan garatzen den herskari hasperendunak) lehenbizikoarena baino zaharragoa izan behar du, hitzen estratu kronologikoek halaxe eskatzen baitute. Kronologia erlatibo batean, beraz, Mitxelenaren bigarren silabako azentua eta Martineten lehenbiziko silabakoa era dinamiko batean ados daitezke baldin eta eboluzio horretan lehentasuna Mitxelenarenari ematen bazaio. Gogora dezagun, bide batez, *akher* bezalako hitzen egitura azaltzeko, Martinetek zer edo zer lehenago (ik. Martinet 1970: 385) \**khakʰaka* > \**hakhaka* > \**akhaka* bezalako bilakabide bat berreraiki zuela, non modu paradoxiko samarrean hasperenaren disimilazioa lehenbiziko silaban ematen den (bere hipotesian hasierako silaba azentuduna denez ez da hau esperoko genukeen emaitza). Bestalde, \**Ch* > *h*-prozesua garai oraindik zaharrago bati atxiki beharko zaio, behegaro ikusiko den bezala, baina, hala eta guztiz ere, Mitxelenak proposaturiko hitz hasierako ahoskera *fortis* harekin bat letorke arazo handirik gabe eta agian eboluzio osoaren alderdi honek ez zuen azentuaren kokagune eta izaerarekin zerikusizuzenik izan.

5. Garatu diren hipotesi eta azalpen posibleen ondorio bezala euskal hasperenaren nolabaiteko balio prosodikoa azpimarratzeko tentaldian eror gaitzke (eta ez arrazoirik

<sup>35</sup> Orain arte disimilazio edo desaspirazio hitzak erabili izan ditugu *ilherri* bezalako formetan gertatzen dena adierazteko. Baina disimilazioa beste gertakari baten azalke fenomeno baino ez dela esan dezakegu, *ilhargi* eta *gaiherdi/gauherdi* bezalako hitzek erakusten duten antolaketa fonologikoa kontuan hartzen badugu. Elkarketa horietan *argi* eta *erdi* elementuek ez dute berez hasperenik, baina haien lehenbiziko silabak azentudunak direnez, hasperena garatzen dute erroko lehen bokalaren aurrean. Badirudi, beraz, hasperena silaba azentudunaren aztarna eta gainera ezaugarri demarkaitzaile berezi bat dela, eta elkarketan azentua galtzen duten hitzek nahitaez galdu behar dutela hasperena (*hil*- edo *hur*-elementuen kasua). Honen ondorioa argia da: ez dago, antza, datu nahikorik disimilazio prozesu batez *stricto sensu* (hau da, bestelako faktoreen, batez ere prosodikoen, eraginik gabe) mintzatu ahal izateko. Gertatzen den gauza bakarra da azentuaren eta hasperenaren arteko erlazioak berekin dakartzan mekanismoak martxan jartzen direla (silaba azentudunak —posizio sendoak— hasperena jasotzen du, lehendik ez badu (*ilhargi* vs. *ilherri*), eta azentu gabe geratzen denak, berriz, hasperenik bazuen, berau galtzen du: ik. klitizazioaren kasua: zub. [ári is] «ari haiz», lap. [ári ais] vs. zub. [ehís] «ez haiz», lap. [eháis], ik. Txillardegí 1980: 192). Bi hasperen zergatik ez diren posible hitz baten barruan (*Reja de San Millán*-en ageri diren formetatik kanpo) era nahiko sinplean esplikatu daiteke ikuspuntu honetatik: azentu bakar bat dagoelako (Doneganek eta Stampek (1978) Grassmannena moduko legetarako proposatzen duten azalpenak ez luke orduan euskal kasuaren berri zuzenean emango).

gabe).<sup>36</sup> Azentuaren eta hasperenaren arteko lotura ukaezina dela eta —salbuespenak ahaztu ez arren—, hasperena silaba azentudunaren bigarren marka bezala aurkeztera auserat gintezkeen. Azentu zaharra zeraman silabaren mugak indartzen zituen elementu bezala. Hipotesi honen alde etimologikoak ez diren hasperen ugariak egongo lirateke, alde batetik. Baina jokabide honek, hasperen zaharraren kasuan, argumentuaren zirkularitasunaren arriskua lekarkiguke: hau da, hasperenak ematen dituen datuek balio izan baldin badute azentuaren hipotesi oso bat eratzeko (azentu horren aztarna gisa), orain ez dirudi oso bidezkoa litzatekeenik azentua erabiltzea hasperenaren beste ezaugarri edo funtzioaren batzuk (prosodikoak, gehienbat) berreraikitzeke. Zuhurrago jokatzekeotan, hasperenketa silaba azentudunaren barneko herskariaren ahoskera berezi, *fortis* baten ondorioa dela esango genuke, ziurtzat jotzen denetik urrunegi joan gabe.<sup>37</sup>

Baina alderantziz ere, nahiz eta argumentazioaren norabidea oro har onargarria izan, hasperenak erakuts dezakeen egiturak ez ditu azentuari buruz egin daitezkeen orokorpenak (dudarik gabe desiratuak eta askotan beharrezkoak) beti justifikatzen. Esaterako, orain arte ikusi dena abiapuntutzat hartuz, baiezia genezake ipar-ekialdeko azentua sendoa dela (horregatik mantentzen da hasperena) eta mendebaldekoa, berriz, ahula —bai eta historian zehar ere—, beste gauza batzuen artean hasperena galdu duelako. Nahikoa da bizkaieraren zenbait azpieuskalkitan gertatzen denari gainbegirada bat ematea esandakoa gutxienez zalantzan jartzeko (ik. Hualde 1995).

Hala eta guztiz ere, euskal hasperenaren funtzio prosodikoak, azentuarekiko agertzen duen loturaz kanpo, hasperenak hitz hasieran kokatzeko daukan ahalmenarekin du zerikusi handia. Berehago zehaztuko den bezala, hitzaren lehenbiziko bokalaren aurreko kokagune horrek demarkatibotasuna ematen zion hasperenaren erabilerari, eta badi-rudi, gainera, ezaugarri hura aitzineuskararen garairik zaharrenei egokitzen zitzaie.

6. Hasperenaren (azentuarekin lotutako) ikerketa nekez bereiz daiteke kontsiderazio diakronikoetatik. Tankera honetako azterketatik atera daitekeen informaziorik maitetsuena, gainera, hizkuntzaren beste garapen momentu batzuei dagokie. Are gehiago, arazoaren zati garrantzitsu bat barne-berreraiketaren bidez arakutzen da. Ezaguna denez, hasperena hedatuago omen zegoen etarotan gaur egun baino: alegia, mendebaldeak ere bazuen hasperenik. Hasperenaren galera historikoa (hegoaldean XVI. mendean eman daiteke erabat galdutzat, ik. Michelena 1977a: 205), lehen esandakoaren ildotik segituz, azentuaren aldaketaren batekin lotzeak ez dirudi hipotesi guztiz zentzugabea denik. Onar daitekeenaren mugen barruan dago halaber —gure ustez— aldaketa horrek azentuaren ahultze prozesu batekin zerikusirik izatea. Mutur batean, egungo egoe-

<sup>36</sup> Funtzio edo balio prosodikoaren ordez, «kulminatibo» hitza ere erabil genezake, Carenkoren (1975: 14) antzera (“It may be said that in Quechua non-laryngealized words are opposed to laryngealized ones; in the latter laryngealization fulfills a culminative function, analogous to a certain degree, to the functions of phonemic stress (ordinary dynamic stress in Quechua almost always falls on the penultimate syllable of a word and is not word-distinctive)”).

<sup>37</sup> Dena den, oraingo honetan ere tipologiak eskaini diezagukeen laguntzaz balia gaitzake: hokan izeneko Ipar Amerikako hizkuntza taldean (yuman talde txikiagoan, hain zuzen) erro azentudunek ezaugarri glotalak erakartzen dituzte. Mota honetako aldaketak “reinforcement of prosodically strong positions” (ik. Salmons 1991: 49) bezala uler daitezke (euskal hasperenaren agerraldi ez etimologikoak bezala). Bide batez, eta argudio tipologikorako esanahi handirik ez badu ere, esan dezagun J. Salmons-ek aipatzen dituen hokan hizkuntzek ez dutela ziurtzat eman litekeen talde genetikorik osatzen; gehienez, “remotely related” direla diosku Foster-ek (1996: 84).

ran, intentsitate azentu sendoa dugu hasperena hobekien mantentzen duen euskalkian; beste muturrean, berriz, ertaroko hizkerak ditugu: zuberera, hasperen eta azentu sendoarekin seguraski, mendebaldekoak, hasperendunak hauek ere, Bizkaia eta Arabaren kasuetan<sup>38</sup> berandu samar arte mantentzen dutenak hasperenaren ezaugarria. Azentuaren ahultzea bigarren mailako hipotesia da, hasperenaren eta azentuaren arteko harreman estuaren hipotesian oinarritzen dena. Beste modu batera esatearren, hasperena azentuaren ondorio baldin bada, eta azentuak berbera izaten segitzen badu (bere nolakotasunaren aldetik), ez dago hasperenaren galera azaltzerik (ez bada beste faktore garrantzitsuagoren bat dagoelako tartean, berehala ikusiko den bezala). Horrexegatik, hain zuzen, lehenbiziko hipotesia onartzeak bigarrena, hau da azentuaren ahultze prozesua, suposatzea darama nolabait.

Hala ere, galeraren beste azalpen bat —azentuaren ahultze horrekin lotua ez dagoena, jakina— proposatu zuen Mitxelenak (1977a: 205). Harentzat galera Goi Nafarroatik hasi izan zitekeen, hizkera horiek aragonesarekin kontaktuan baitzeuden, eta aragonesak, ezaguna denez, ez zuen hasperenik (latinaren *f* frikaria mantendu zuelako). Lurralde horietan hasperena galdua zen XI. menderako. Galeraren hedapenak mendebaldea ukituko zuen gehienbat. Ipar-ekialdeko hizkerek, aldiz, kontaktu hertsia goa zuten gaskoiera bezalako dialektoekin eta egoera horrek hasperenaren edozein ahulketa mota eragotz zezakeen.

Badirudi momentuz ez dagoela askoz urrunago joaterik. Azentuaren berreraiketak egin ahal izan dira (batzuk besteen osagarri, garai ezberdinekin lotzen badira —Martinet eta Mitxelenaren kasuan, agian—, eta baita batzuk besteen baztertzaila, ik. Hualderen hitz bukaerako azentuaren hipotesia bizkaierari dagokionez), baina eboluzioaren azalpen orokor baten faltan gaudela esan daiteke (Hualde 1995).<sup>39</sup> Aipatutako tendentziak eta eraginak garrantzizkoak dira ezbairik gabe, baina ez dira nahiko izan azentu zaharra eta egungo sistema ezberdinak modu seguru eta erabilgarri baten bidez elkarrekin lotu eta azaldu ahal izateko.

7. Bada, artean ere, irtenbiderik ezean, eztabaida behintzat eskatzen duen euskal hasperenaren alderdi bat. Egungo euskalkiek erakusten duten hasperenaren banaketa dagoeneko argituak dauden murriztapen jakin batzuetan oinarritzen da, aztertu bezala. Hitzaren barnean hasperen bakar bat baino ez bada zilegi, orduan hitz konplexuetan bi morfema hasperendun elkartzan direnean, horietako batek (lehenbizikoak) hasperena galtzen du nahitaez. Baina beste garai batzuetatik jaso dezakegun testu-lekukotasunari esker, badakigu hasperenari gaur egun ezartzen zaion murriztapen hori —modu zehatz horretan definitua— ez dela beti indarrean izan. *Reja de San Millán* delakoan (1025. urtea) *Hilarrazaha*, *Hagurahin*, *Hurizahar*, *Zuhazulha*, *Hararibini*, *Harbaia*, *He-reinzuahin* eta antzeko idazkera ugari irakur daitezke. Orain arte behintzat, <h> gra-

<sup>38</sup> Bizkaierak izan omen duen eboluzioa tankera honetako hipotesien bazter arriskutsu batean aurkitzen da, edozein azalpen saio bertan behera utz dezaketen kontradibide gisa. Bizkaiera zaharrak ez zuen —ezagutzen diren datuen arabera (Hualde 1995)— bere azentu sendoa galdu, hasperenaren galerak hori pentsatzera bultzatzen ez zezakeen arren. Oraingo azentu kontrastiboa ere (tonu ezberdintasunak barne) sendoa da eta ez dirudi berrikuntza denik. Gipuzkera zahararen azentuera, Larramendiren lanetan jaso zen moduan, mendebaleko sistemen antzerakoa zen, Hualderen (1991: 731) ustetan.

<sup>39</sup> Besteak beste, hipotesi honek erabat bereizten ditu azentua eta hasperena. Pentsa dezagun soilik hiru silabako hitzetan hasperena ez dela sekula agertuko azentuarekin lotuta.

fema hori hasperenaren aztarna segurutzat hartu izan da (ik. Michelena 1964: 29).<sup>40</sup> Beste aldetik, eta iraganean haruntzago joanda, aitzineuskararen ahaide hurbila den akitaniarren<sup>41</sup> inskripzioetan badira hasperenaren seinaleztat har daitezkeen <h> bikoitzak hitz gutxi batzuetan, hala nola *Hahanni*, *Hahanten* (*Hahantenn*) eta *Hontharris* formen kasuan (ik. Gorrochategui 1984: batez ere 211-212).<sup>42</sup> Mota honetako idazkeren aurrean pentsa genezake desaspirazioa prozesu nahikoa berria dela eta antzinatean ez zegoela hitzaren araberrako hasperenaren murriztapenik. Horraino bestelako laguntzarik gabe hel gaitezke eta baita horrekin, nahi badugu, konformatu ere.

Baina aitzineuskararen ikerketak emandako azken emaitzak aintzat hartuz, jo dezakegu, nahi badugu, jakina, begibistakoak diren mugetatik zertxobait haratago. Aitzineuskararen erroaren gaineko ikerketak nahikoa urriak izan dira duela gutxi arte. Uhlenbecken eta Lafonen lan taxonomikoez aparte, Mitxelenaren iritziek (eta Azkueren intuizioren batek) osatzen zuten erroari buruzko ezaguera (ik. Lakarra 1997: 583-588). Oro har erroak bisilaboak izateko joera agertzen dute garai batetik aurrera: hala ere, badira bi silaba baino gehiago dituztenak eta bai silaba bakarrekoak ere (aditzen zatiketa morfologiak agerian uzten zuenez: \**e-ror-i*, \**e-khaR-i*, \**e-bil-i*, \**e-kus-i*, \**e-gi-n*, etab.). Aitzineuskararen garai zaharrenetarako erro monosilabiko bat berreraiki daitekeela frogatzen saiatu da, bestalde, J. A. Lakarra (1995, 1996b: 38-39),<sup>43</sup> eta bide horrek emaitza onak eman ditzakela erakutsi du. Gure iritziz, ikuspegi berri honek aldaketak dakartzak euskal hasperenaren eboluzioa aztertzerakoan ere. Hitzaren barneko hasperenaren banaketa<sup>44</sup> finkatu ondoren, alde batetik, eta quechuan (ik. Carenko 1975: 14) eta hokan taldeko yuman hizkuntzetan suertatzen dena kontuan izanik, bestetik, pentsa genezake, tipologiaren datuetan gogoeta sustraituz, hasperena euskaraz ere erroarekin lotuta dagoen ezaugarri fonetiko-prosodiko bat dela. Hemendik abiatuta, euskararen eboluzioa, morfologiaren zein fonologiaren alderdi honen eremuan,

<sup>40</sup> "La abundancia de *hh*, que da un aire tan "vasco-francés" a este documento, es indicio seguro de que la aspiración vivía todavía en la lengua hablada, incluso al parecer tras *l(n)*, *ry rr*".

<sup>41</sup> "Aquitanian is so closely related to Basque that we can, for practical purposes, regard it as being the more-or-less direct ancestor of Basque" (Trask 1995: 87).

<sup>42</sup> Bada Nafarroako inskripzio batean (San Martín de Unx-en aurkitutakoan) erabat arrotzkat eman daitezkeen *Hehelpis* teonimoa ere (dat. pl. baten itxura duen arren, hitzaren zati nagusia ezin da inolaz ere indoeuropartzat hartu), ik. Michelena (1982: 180): "Es un hecho, que cada vez se manifiesta con mayor claridad, que la presencia de *hh* en la onomástica constituye uno de los indicios más fidedignos de euskarismo" (honen inguruan ik. baita Gorrochategui 1985: 622, 1987: 69). Hala ere, Mitxelenaren gogoeta amaieraraino segitzea komeni da: "claro que no se trata de un signo inconfundible, puesto que hay que contar por lo menos con el gran peso que el capricho tiene en todo lo gráfico". Honekin batera, ez dakit bidezkoa litzarkekeen (zenbait kasutarako) *Reja de San Millán*-en *hh*-en idazkera bokalen arteko hiatoak eta hitz hasierako bokalak (*z* eta *u*-) seinalatzeko modutzat hartzea, Mitxelenak *Refranes y sentencias* (1596) testuaren grafiei buruz erakutsi bezala (ik. Mitxelena 1979: 413; Lakarra 1996a: 22). Badirudi, dena den, adibide guztiekin ez dagoela horrela jokatzetik. Ik. baita Michelena (1950: 202): "*H* no es rara en posición intervocálica en aquitano (recuérdese el famoso *Leherenno*) y su única explicación es que sea la transcripción de una fonema existente en la lengua".

<sup>43</sup> Erro kanonikoaren oinarrian dagoen silabaren nahitaezko eta hautazko osagaiak zeintzuk ziren erabakitzerakoan ere azaltzen dira hipotesi bakoitzaren xehetasun ezberdinak. Mitxelenak proposatutako silabaren egiturarako ik. Michelena (1979a: 345).

<sup>44</sup> Euskal hasperena beti erroari edo oinarri lexikoari atxikirik ageri da: "Aún (*sic*) en monosílabos, la aspiración no puede aparecer detrás del tema nominal, ni en sufijos ni delante del artículo" (Michelena 1977: 328, 42. oharra).

erroaren eta silabaren arteko loturaren menpe agertuko litzaiguke, jarraian ikusiko dugun moduan.

Aitzineuskararen erro kanonikoak monosilabikoak baldin baziren eta hasperena behin bakarrik agertzen bazen erro bakoitzean (beti bokalaren aurrean, inoiz ez atzean), akitanierazko *Ha-han(-ni)*<sup>45</sup> eta *Hon-tharr-is* (erk. eusk. *-tar* atzizkia)<sup>46</sup> bezalako edo antzeko zatiketa morfologikoak proposatu beharko dira garai haietarako. Akitaniera aitzineuskararen ezaugarria izan zitekeen berezitasun honen partaide bezala azaltzen zaigu, nahiz eta ordurako jadanik erro bisilabikoak egongo ziren. Zehatzago izatearren, akitanierak bereziki islatzen duena da hasperena oraindik silaba bakarrari (aitzin erroak monosilabikoak baitziren eta hasperena, esan bezala, bokalaren aurrean soilik ager zitekeelako) atxikirik zegoeneko garaia. Bestalde, *Reja de San Millán* delakoan aurkitzen diren idazkeretan (erro polisilaboak oso hedatuta zeuden ordurako) erroaren eta hasperenaren antzinako lotura bera suposa dezakegu *Zuhazulha*, *Hereinzgubhin* eta agian *Harhaia* izenetan (hau da, hasperen bakar bat erro (edo dagoeneko morfema?) bakoitzeko). Edozein modutan pentsa daiteke, halaber, zenbait kasutan horko idazkerak hitz elkarketa artean ere gardena, hau da, elementu bakoitzaren autonomia mantentzen duena, islatzen dutela (ik. *Hurizabar*).

Baina aro horren akabu aldera (kronologia absolutu batean oraingoz zehaztezina dena) eta erro monosilabikoen konbinaketari (eta atzizkiei) esker, bi eta hiru silabako oinarri lexikoak agertu ziren, gerora erroak bailiran erabiliak izango zirenak (pentsa dezagun *gizon*, *andere*, *seme*, zub. *alhaba* eta egungo beste forma zatigaitzetan). Lehen silaba bakarraren mugetan (erroa bera monosilabikoa baitzen) ematen zen murriztapenak egoera berrian oinarri lexiko polisilabikoa funtzionatuko du, posible eginez, modu horretan, *ilherri* bezalako hitz-elkarketetan, bi errokoak diren arren eta hitzaren jatorri konplexua pixkanaka ilunduz doan neurrian (ik. bestela Etxepareren *hilhoça*, Leizarragaren *hilebethe* edota Etxeberri Ziburukoaren *illhabethe* adibideak),<sup>47</sup> desaspirazio prozesuaren garapena.

Hasperenaren banaketa, beraz, erroari lotuta azter dezakegu euskararen historian zehar. Ikuspegi diakroniko honek eboluzioa irizpide bakar baten laguntzaz ikusmiratzearen abantaila eduki dezake, alde batetik (sinpletasunaren abantaila, beraz), eta bestetik, modu esanguratsu batean errazten du aitzineuskararen eta egungo hizkeren arteko ezberdintasun nagusiaren azalpena (argitasunaren abantaila), hasperenaren banaketak bere historian nozitzen duen aldaketarik garrantzitsuena, izan ere, ez bailitzateke euskal erroaren berregituratze prozesuaren ondorioetako bat baino.

<sup>45</sup> *Hahan(n)-* oinarria femeninoa dela dio J. Gorrotxategik (1984: 361, 1995: 41) eta baliteke *Hanna* (erk. eusk. *anai-a*, nahiz eta "con mucha dificultad" izan, ik. Gorrotxategui 1984: 361) formarekin zerikusirik izatea: *hanna*- vs- *ha-han(n)-* oinarri aurrizkiduna, hau da, aurrizki bihurtutako *ha*- erroa duena, ala, agian hobeki, erreduplikazioaren bitartez eraturako oinarria? Erk. *go-gor*, *ze-zen*, agian \**do-dol* (> *odol*) eta \**de-deR* (> *eder*), Lakarra (1995: 201). Erreduplikazio horiek guztiak zatikakoak dira, hau da, silabaren koda dagoen kontsonante ozena galdu egiten da (beraz, \**han-han(n)-* > *Hahan(n)-*; \**han-han-ten* > *Hahanten*).

<sup>46</sup> Ik. Michelena (1957: 174), Gorrotxategui (1984: 214). Akitanieraz *Hon-* oinarria ez da beste inon ageri (eusk. *hon?*). Ikuspegi honetatik *-thar/tar-* morfema noizbait gramatikalizatutako erro bat bezala berriinterpretatu beharko da.

<sup>47</sup> Hitz elkartu berrien autonomiari buruz ik., berriz ere, Michelena (1977a: 212).



8. Hasperenaren aurrehistoria modu honetan berrinterpretatzeak hainbat ondorio dakar berekin. Lehena eta agian garrantzitsuena, monosilabismoaren aroa eta orduko egoera gramatikala, alde batetik, eta euskal azentuari buruzko hipotesiak, bestetik, modu diakroniko batean uztartzeko beharra. Erro monosilabikoak, jakina, ez ziren be-reizten azentuari esker (egoera hartan gehienbat tonua izan zitekeen erroen bereizlea). Azentua, beraz, geroago agertuko zen. Pentsa dezakegu, gainera, orduko hitzak, geroa-gokoak bezala, bi taldetan sailkatzen zirela, hasperenaren arabera: hau da, hasperena eta beste laringalizazio moten irakurketa prosodikoa egiten badugu (Carenok bere 1973ko lanean proposatzen duen modukoa; ik. halaber Carenko 1975: 14), hitz hasperenduak genituzke talde batean, eta hitz hasperendugabeak, bestean. Ezaugarri prosodiko gehie-nekin gertatzen den bezala, hitzaren (eta erroaren) izaera hasperendua behin bakarrik markatzea nahikoa izango zen (eta horrexegatik aurkitzen dugu, hain zuzen, hasperen bakarra erro bakoitzeko). Erro monosilabikoez ari garenez, eta kontuan hartuta euskal hasperena ez dela inoiz ere silabaren kodan ematen, argi dago zein zen hasperenaren toki zilegi bakarra: erroaren (eta hitzaren) hasiera. Hasierako hasperen historikoak (bai hasperen soilak eta seguraski baita herskari *fortes*-en bilakabidearen emaitza direnak) aitzineuskaratik datorren tendentzia honen ondorioztat har daitezke, eta beraz, ez lu-kete zerikusi handirik izango Martinetek aldarrikatutako lehenbiziko silabako azentua-ren hipotesiarekin. Demarkatibotasunaren funtzioa, quechuan bezala (ik. Carenko 1973, 1975), segmentu-ezaugarri batek betetzen zuen hitz hasieran (+/- hasperena).

Erro bisilabikoak agertu zirenetik, erreduplikazioei edo erro konbinaketei esker, azentuaren kokagunak izango zuen zeresanik. Datuetatik abiatuta, eta goian ikusi den bezala, lexikoaren estratu zaharrenaren itxurak Mitxelenari eman bide dio arrazoa: hau da, orduko azentua bigarren silabari zegokion eta horrek esplikatzen ditu *bikhe*, *gathe* eta antzeko maileguen adaptazioa.<sup>48</sup> Erreduplikazioaren adibideak ere bat letozke Mi-txelenaren hipotesiarekin (\**zenzén* > *zezén*, \**goRgór* > *gogór*, \**deR-déR* > *edér*, etab.), as-koz errazagoa baita zatikako erreduplikazioa beste edonola baino bigarren silabako azentuaren bidez azaltzea.<sup>49</sup> Dena den, J. A. Lakarrak adierazi didanez, erreduplikazioa zatikakoa izan zitekeen hasiera-hasieratik;<sup>50</sup> horrela izatera, aipatu berri diren aitzinformak ez lirarteke beharrezkoak izango. Bestalde, atzizki zenbaitek azentua erakarri zuten, hitz berriaren bigarren silaban kokatuaz azentua: hau da, seguraski, *Hont-tharr-is* for-maren kasua (ik. Michelena 1977a: 419-420).<sup>51</sup> Azentuak, bere kokagunea finkoa den

<sup>48</sup> Bada, oraindik ere, beste aukera bat, korapilotsuagoa, gure ustez: maileguk hasiera hasieratik beren azentua mantendu bazuten, oro har uste izan den bezala (ik. beherago), pentsatzekoa da guztiak ez zirela bi-garren silabako azentuarekin euskarara egokituko. Edo jatorrizko azentu horien adaptazio orokor bat gertatu zen (baina horren aldeko datuak ez dira batere ugariak) edo hasperentzeak ez luke erlazio zuzenik izango azentuarekin. Bigarren hipotesi honek (\*\**bikhe* bezalako formetan oinarritzen denak, alegia) azalpenen era-ikin osoa suntsituko luke eta ez du ematen, ondorioz, oso bide emankorra denik. Ikuspuntu fonetiko eta ti-pologikotik datu gehienak aurka izango lituzke, gainera. Irtenbidea, beraz, maileguketaren bereizkuntza kro-nologikoan bilatu beharko da (mailegatutako forma zaharrenek egokipen borobilago bat jasoko zuten, normala den bezala, berrienak hizkuntza emailearen hainbat ezaugarri mantenduko zituzten bitartean).

<sup>49</sup> J. Gorrotxategiri zor diot hain gardena dirudien lotura honetaz ohartaraztea.

<sup>50</sup> Erreduplikazio moten tipologia baterako ik. Moravcsik (1978).

<sup>51</sup> Ik. akitanierazko *Haronitarris* eta *Halscotarris* bezalako formak (bigarren silabako azentuak *-tar-* atziz-kiaren aldaera hasperengabea azalduko luke). Baina bada *Baisotharf* forma bat ere (ik. Gorrochategui 1984: 153). Hirugarren silabako hasperena berrikuntza dela pentsatu beharko da, hau da, hasierako banaketa *Hon-thar-* eta *Haron-tar-* formek erakusten dutela, eta geroago, atzizki bihurtutako elementuaren hasperena

neurrian, balio demarkatzailea eskuratuko du harrez gero, baina horrek ez du esan nahi hasperenak lehen betetzen zuen funtzio demarkatzaile hura galdu zuenik (erk. quechua-ren egoera, non azentuak ez dien hasperena eta glotalizazioari balio demarkatibo edo kulminatiborik kentzen, ik. Carenko 1975: 14).<sup>52</sup> Are gehiago, *phike*, *khate* bezalako forma berriagoak azaltzeko nahikoa litzateke ahoskabetze prozesua asimilazioaren bidez esplikatzea, alde batetik, eta bestetik, hasierako hasperena aitzineuskaratik datorren dagoeneko aipatu dugun tendentziarekin lotzea. Ikuspegi honek ondorio larriagoak dakartza: lehenbiziko silabako azentua (Martineten hipotesia), izatekotan, bigarren silabakoa baino berriagoa litzateke ezberrik gabe, eta agian azentuaren aldakuntza horrek ez luke edukiko loturarik hitz hasierako herskariaren hasperentzearekin.

Azentuaren eta hasperenaren arteko lotura hertsia izan bide zen, ikusi ahal izan den bezala, baina ez erabatekoa. Erro monosilabikotik bisilabikorako bidean, bi dira hasperenak hitzaren barruan agertzeko izan zituen aukerak: bata, silaba tonikoan (\**a-khéR* eta beranduago \**bi-khé* edo \**ga-thé* forma mailegatuek erakutsiko duten modura), eta bestea, hitz hasieran (\**har-i*, \**hel-i*, etab.), azentuarekiko menpekotasunik jasan gabe eta gainera zaharragoa den joera bati eutsiz (erro eta hitz hasierako hasperena). Beste aukerarik ez dago: ezaugarri prosodiko bezala, hasperena behin bakarrik ager zitekeen, funtzionalki hori nahikoa baitzen hitza hasperendua zela adierazteko (bi hasperen edota herskari hasperendun dauzkaten akitanierazko formek konplexuak behar dute izan, hau da, ez monomorfemikoak).

Baina artean ere garatzen ari garen ikuspegi honek azentuaren eboluzioaren eta egungo egoeraren berri eman beharko luke, azalpenaren osotasunaz gozatu nahi badu. Egungo hizkeren datuak esplikatzen ez dutela leporatzen die Hualdek (1993: 44) hipotesi klasikoiei. Goian ikusi ahal izan da Martineten hipotesiaren behar handirik ez dagoela, hasperenaren ikuspuntutik, behintzat. Baina Mitxelena ederki asko lot daiteke, gure ustez, egungo azentu sistemekin (guztiek ez bada ere, horietako zenbaitekin, behintzat). Aitzineuskararen (baina ez berreraiki daitekeen haren garai zaharrenaren) bigarren silabako azentu demarkatzailea azkenaurreko silabako azentu bezala berriinterpretatua izan zen testuinguru polisilabikoan: ik. *gizón*, *akhér*, *odól*, *edér*, baina *andére*, *ithúrri*, *akhérria*, *odóla*, *edérria*. Prozesu honi mailegatutako hitz berriek berekin zekarten azentuaren kokagunea (*báke*, *mútu*, *jóku*, *ohóre*, *bekhátu*) eta paradigmatan emandako barne-aldaketa (*akhér* > *ákher*, *alhór* > *álhor*) eransten badizkiogu (ik. Michelena 1977a: 424), ekialdeko euskalkietan azkenaurreko silaban gauzatzen den azentua (zub., erronk.) izango genuke.

Beste aldetik, eta mendebaldeko azentu sistemai dagokienez, azentu kontrastiborik ez zegoen garai batetik erator daitezkeela (ekialdekoak bezala) erakutsi du Hualdek

---

hedatu egin zela beste kokaguneetara ere (honekin batera zehaztu behar da, J. Gorrotxategik dioskun bezala, <h> grafemarik gabeko idazkerak ez dutela ahoskera hasperengabea ziurtatzen; ez behintzat <h>-ren idazkerak hasperendunarena ziurtatzen duten heinean). Hala ere, beste irtenbide bat egon daitezkeela uste dugu: *tar* atzizkia azentuerakartzailea bazen, Mitxelena zioen moduan, pentsa daiteke azentua ez zegoela ordurako bigarren silabarekin era hertsiegi batean lotuta eta, are gehiago, tankera horretako atzizkiak, hain zuzen, hasi zirela azentu finkoaren garaiari amaiera ematen.

<sup>52</sup> Egituraren ikuspegitik aitzineuskararen garai hura quechuaren egungo sistematik erabat gertu egongo litzateke: "in the latter laryngealization fulfils a culminative function, analogous to a certain degree, to the function of phonemic stress (ordinary dynamic stress in Quechua almost always falls on the penultimate syllable of a word and is not word-distinctive)" (Carenko 1975: 14).

(1993). Hala ere, bere hipotesiak ez du azentu demarkatzailearena guztiz baztertzeko. Alderantziz, garrantzizkoa izan daitekeen daturen bat ematen du haren alde, hala nola hitz elkartuen azentu mota bizkaieraz eta oro har aurreazentutzaileak deritzen atzizkiez<sup>53</sup> osatuta dauden hitzek erakusten duten egitura: ik. *zazpi-garren*, *negár-ti* eta batez ere *burúandi*, *elizaurre*, *mutilzar*, *artózáti* (Getxo), *eskúluze*, *txoriburu*, *gibélurdin* (Bergara) bezalako elkarketek egungo azentuaren jatorriari eman diezaioketen argibideak: kontua ez da oraingo kontrastibotasunaren azarnak non diren bilatzea, baizik eta sarriagoa den egungo azentuaren kokagunea aitzineuskararen azentuaren (aro monosilabikoaz geroztik) oinarri demarkatiboarekin lotzea. Adibide horietan antzematen denez, hitz elkartuen lehenbiziko erroak bigarren silaban darama azentua.<sup>54</sup> Hala ere, morfemen arteko mugan bokalak elkartzeko direnean bestelako egitura mota azaleratzen da. Holakoetan emaitzak ezberdinak izan daitezke (ik. *báserri* (< *baso* + (*h*)*erri*), *étsondo* (< *etse* + *óndo*)), baina guztietan lehen morfemaren azken bokala galtzen da. Hualdek (1995: 185) dioen bezala, elkarketa mota hau baldin bada zaharrena (eta ez *bariaku* (< \*(*a*)*bari-ba(ga)ko-egun*, ik. Mitxelena 1971: 274, 1977a: 504) forman islatzen dena), ikaragarri zailtzen da bigarren silabako azentuaren eta hitz elkartuen arteko erlazioa. Beste irtenbiderik ez dagoenez pentsatu beharko da elkarketa horiek azentu demarkatzailearen garaiaren aurretikoak direla eta, beraz, bigarren silabako azentuaren sorrera (eta horren eragina) ustez baino gertakizun berriagoa dela (zub. *ilhéri* bezalako formak berrikuntza baten ondorio lirateke, zubererak azentua azkenaurreko silaban finkatzeko duen joeraren emaitza).

9. Orain arte deskribatutako ikuspegiaren ondorioak zehaztu eta aztertzeak ezinbestekoa dirudi. Dauzkagun tresnez baliaturik, aitzineuskararen morfologiaren bilakaera kronologikoa (kronologia erlatibo baten arabera, jakina) urratsez urrats ordena dezakegu, horretarako euskal erroaz egin diren azken ikerketetik abiatuz eta berreraikitzen diren aldaketak litekeenaren barruan, eta ez segurutzat jo daitezkeen datuen artean, kokatu behar direla ahaztu gabe:

*I. garaia (aitzineuskara I):* CVR/S egiturako erroak berreraiki dira garairik zaharreneko (bestelako egitura ez kanonikoak, indoeuropeeraz gertatzen den bezala, hitz gramatikaletan soilik islatzen ziren). Herskariak galarazita zeuden silabaren kodan (ik. Lakarra 1995, 1997). CVRS bezalako egituretan (*hortz*) -S atzizki modura ulertu izan da. Kontsonantez hasten ez diren erroek nahitaez behar zuten hitz hasieran hasperena (*har*, *bel*, *hil*). Hau da: ez zegoen bokalez has zitekeen errorik.<sup>55</sup> Hasperen batzuk antzinako (baita euskararen aurretiko) herskari *fortes*-en bilakabidearen ondorio izan ziren: \**karr* > \**haR*- (ik. baita jatorri ezberdineko inskripzioetan, ib. *talscu*, ausk. *Talsco*, pir. *Halsco*; ik. Gorrochategui 1984: 378). Hasperena hasierako garai honetan erroari lotuta ageritzen (silabaren *onset*-ean) eta ez zegoen azentuaren menpe (azentua bera oraindik garatu gabe egongo zelako, besteak beste). Gauzak horrela, hurrengo garaietan ere hitz hasierako hasperenak ez du beti azentuaren ondorio izan behar.

<sup>53</sup> Ik. baita Hualde (1997b: 431).

<sup>54</sup> Perpaus bukaerako azentuaren eta hitz azentu kontrastiboaren erdibidean ote bigarren silabako azentu demarkatzailea?

<sup>55</sup> Ik. Lakarra (1997: 588): "Guzti honetaz landa marka bide liteke monosilaboetan C- (*gaR*, *bil*, *goR*, *zur*, *luR*) ez dugunean *h*- ia beharrezko dela: hVS (*hortz*, *hats*, *hitz*, etab.) edo hVR (*hor*, *hon*, *bel*, *hil*, etab.). Bada orobat hVRS (*hortz*, *hartz*, *hertz*), baina ez VRS".

II. *garaia (a)* edo *aitzineuskara IIa*: Erreduplikazioaren bitartez erro bisilaboak agertu ziren, CVR/S-CVR/S itxura zeukatenak. Prozesua horrela eman bazen, ordurako bigarren silabako azentua (Mitzelenaren hipotesia) garatutzat eman daiteke, izan ere horrek esplikatuko bailuke egitura horien bilakaera: CV-CVR/S (\*goRgóR > \*gogór; \*zenzén > zezén; \*dasdátS > \*dadátS) edo hV-hVR (agian akit. \*hanhan- > Habanni). Hala ere, goian aipatu bezala, erreduplikazio osotik ez dago nahitaez abiatu beharrik, hain zuzen ere lehenbiziko momentutik partziala izan zitekeelako. Bestalde, garai honen hasieran ere erroak ezin ziren bokalez hasi: *akher*, *arho* edo *alhor* bezalako formak zaharrak baldin badira,<sup>56</sup> \**ha(n)keR*, \**harto*, \**haloR* bezalako aitzindariak berreraiki beharko lirarteke. Bigarren silabako azentuaren garapenak silaba markatua hasperendu zuela pentsa daiteke: \**ha(n)khéR*, \**harthó*, \**halhóR* (bi hasperendun, silaba ezberdinean, zilegiak lirateke oraindik, akitanierak erakusten duen bezala).

II. *garaia (b)* edo *aitzineuskara IIb*: Erreduplikazioaren ondorioz, CVCVR/S egituratan herskari horzkarien arteko disimilazioa gertatu zen (ik. Lakarra 1997: 598). Hemen ere emaitzek bigarren silabako azentuaren hipotesia bermatzen laguntzen dute: \**dedÉR* > *edér*, \**dodól* > *odól*, \**dadátS* > *adátS*, \**dadáR* > *adár*. Horzkariz hasten diren hitz zahar bakarrak aditzaren orainaldiko formak dira (*da(n)*- aurrizkia dutenak). Bestalde \**ha(n)khéR*, \**harthó*, \**halhóR* bezalako formek desaspirazio prozesu bat pairatuko zuten, ordurako erro bisilaboen hedapen indartsuak erro kanonikoa bisilabikotasunarekin lotuko baitzuen: horra hor, beraz, zubereraz aurkitzen diren *akher*, *arho*, *alhor*. Aldaketa hauek, agian aditz aurrizkien sorrerarekin batera, egoera berria sortu zuten, zilegi eginez bokalez hasten ziren hitzak: *akhér* bezalako formak berriagoak baldin badira, ez legoke arazo handirik haien agerraldia garai honekin lotzeko (agian *abar*, *atal*, *elur* eta antzekoekin gerta daitezkeen bezala). Hala ere, *hartu* eta *heltu* bezalako formak geratzen dira esplikatzeko. Argitu behar dena da, garai honetarako, zergatik ez den \**harthú* > \**arthú* edota \**helthú* > \**elthú* bezalako eboluziorik izan. Irtenbideak, antza denez, kronologikoa beharko du izan: *-tu* oso atzizki berria da (latinetik mailegatutakoa)<sup>57</sup> eta ordurako, agian, bigarren silabako azentua ez zen hain finkoa izango (maileguen estratu ezberdinek adierazten diguten bezala, erk. *bikhe* vs. *phike* eta baita, akaso, *bake*). Martineten hipotesia aintzat hartzen bada (honen berrirakurketa ik. *supra*), lehenbiziko silaban kokatutako azentuak —gure ustez maileguez zekarten azentu motaren eraginpean zegoenak— izan zezakeen agian zeresanik momentu hartan).<sup>58</sup>

III. *garaia (aitzineuskara III)*: lehenagoko zatiketa morfologikoa iluntzen joan zen heinean, erro polisilabikoak agertzen hasi ziren: hau izan daiteke *andere* eta *alhaba* formen kasua. Euskal erroaren taxonomian aurki daitezkeen egitura guztiak egongo ziren hedatuak hirugarren garai honetatik aurrera. Bigarren (edo bisilaboetan lehenengo) silabako azentua era nahikoa sinplean berrinterpretatu zen azkenaurreko azentu gisa (Erronkarin eta Zuberoan).

<sup>56</sup> *Akher* formaren kasuan, bestalde, *a-kher* (<\**an-keR/geR*: cf. *oker* < \**orkeR* < \*(*o*)*nkeR*; *muker*, etab.) zatiketa proposatu izan da (ik. Lakarra 1997: 598).

<sup>57</sup> Ik. Michelena (1977a: 214).

<sup>58</sup> Kontua da badirela *deithu*, *sarthu* bezalako ahoskerak, oro har nahikoa bitxia den atzizkien haspenarekin. Hemen berrikuntzaren bat eman zitekeen (edo, bestela, pentsatu beharko da *hartu* bezalako formak lehenagoko *har-i-tu* (ik. Etxeparengan) batetik eratorriak direla, non atzizkia hirugarren silaban ageri zen).

10. Ikuspegi diakronikotik euskal hasperenari buruz esandakoa laburbilduz, azpimarratu behar da hasperenak euskararen bilakabide aurrehistorikoan bete zuen funtzio demarkatzaile eta prosodikoa, honen eskutik baitoaz aitzineuskararen hasperenaren gainean gauzatu daitezkeen hipotesiak. Horietarik hemen gorpuzten saiatu garena hasperenaren eta erroaren arteko loturari dagokio. Datu tipologiko zenbait alde daudelarik, esan daiteke hasperenaren banaketari buruz dakigunak aukera ematen digula desaspirazioaren legea (*ilberri* bezalako formetan ematen dena), akitanierazko datuak tartean direla, era dinamiko batean berrirakurtzeko: erroari lotuta zegoen neurrian, hasperena behin bakarrik ager zitekeen, baina erroaren mugen barruan soilik. Akitanierazko forma bereziak bi errodun —bi morfemadun izateaz gain— bezala aurkeztu beharko lirateke edo bestela hasperenaren agerraldia silabara (erroak berak monosilabikoak baitziren) mugatzen zen garai hartako aztarna gisa. Ikuspegi hau bere ondorio logikoetara eramanez gero, aipatutako eta hain ezaguna den desaspirazioaren prozesua euskal erroa monosilabikotasunetik polisilabikotasunera daraman eboluzioaren epifenomenoa besterik ez litzateke izango (erroa aldatuz doa, baina ez hasperenari ezartzen zaizkion murriztapenak, erregelak bera baita: hasperen bakarra erro bakoitzeko). Proposatutako berrirakurketak beste hainbat alderdi ditu, jakina, batez ere hasperena eta azentuaren arteko erlazioari dagokiona. Kasu honetan eboluzioa ilun samarra baldin bada ere, bada euskarriren bat edo beste (aurkezten saiatu garen bezala) erro monosilabikoaren aroa, bigarren silabako azentu demarkatzailea eta egungo hizkeren azentua elkarrekin era diakronikoan uztartzeko.

## Bibliografia

- Bassols de Climent, M., 1983, *Fonética latina*, 6. berrinpr., Madril, C.S.I.C.
- Campbell, L., 1990, "Mayan languages and linguistic reconstruction", in Ph. Baldi (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*, Berlin-New York, 115-129.
- Carenko, E. I., 1972, "O laringalizacii v jazyke kečua", *Voprosy jazykoznanija* 1972-1, 97-103.
- , 1973, "K funkcional'noj xarakteristike laringal'nosti v jazyke kečua", *Voprosy jazykoznanija* 1973-3, 78-89.
- , 1975, "On laryngealization in Quechua", *Linguistics* 146, 5-14.
- Collinge, N. E., 1985, *The Laws of Indo-European*, Amsterdam-Philadelhia, John Benjamins.
- Donegan, P. J. eta D. Stampe, 1978, "The syllable in phonological and prosodic structure", in A. Belf, J. B. Hooper (arg.), *Syllables and Segments*, North Holland Publishing Comp., 25-34.
- , eta —, 1983, "Rhythm and the holistic organization of language structure", in J. Richardson et alii (arg.), *Papers from the Parasession on the Interplay of Phonology, Morphology and Syntax*, Chicago Linguistic Society, U. of Chicago, 337-353.
- Foster, M. K., 1996, "Language and the Culture History of North America", in W. C. Sturtevant (arg.), *Handbook of North American Indians. Vol.: 17: Languages* (I. Goddard, arg.), Washington, 64-110.
- Gamkrelidze, T. V., 1981, "Language typology and language universals and their implications for the reconstruction of the Indo-European stop system", in Y. Arbeitman, A. R. Bomhard (arg.), *Bono Homini Donum. Essays in Memory of J. Alexander Kerns*, Amsterdam, John Benjamins, 571-609.
- eta V. V. Ivanov, 1984, *Indoevropskij jazyk i indoevropejcy*, Tbilisi, Izdatel'stvo tbilisskogo universiteta.

- , eta —, 1995, *Indo-European and the Indo-Europeans*, Berlin-New York, Mouton de Gruyter.
- Gorrochategui, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbao, Universidad del País Vasco.
- , 1985, “Lengua aquitana y lengua gala en la Aquitania etnográfica”, in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 613-628.
- , 1987, “Mitxelena eta epigrafía”, *Egan* 40, 3/6 (Ale berezia: K. Mitxelena. *Gizona eta Hizkuntza*), 65-70.
- , 1995, “The Basque Language and Its Neighbors in Antiquity”, in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 31-63.
- eta J. A. Lakarra, 2001, “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in F. Villar, M<sup>a</sup> P. Fernández Álvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamanca, Ediciones Universidad de Salamanca, 407-438.
- Hualde, J. I., 1991, “Manuel de Larramendi y el acento vasco”, *ASJU* 25: 3, 737-749.
- , 1993, “On the historical origin of Basque accentuation”, *Diachronica* 10: 1, 13-50.
- , 1995, “Reconstructing the Ancient Basque Accentual System: Hypotheses and evidence”, in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 171-186.
- , 1997a, “Aitzineuskararen leherkariak”, *ASJU* 31: 2, 411-424.
- , 1997b, “Zerbait gehiago euskal azentubideen historiaz”, *ASJU* 31: 2, 425-445.
- , J. A. Lakarra eta R. L. Trask (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam, John Benjamins.
- Hurch, B., 1987, “On aspiration with special reference to Basque”, in P. Salaburu Etxeberria (arg.), *Euskal morfologia eta fonologia eztabaida gaiak*, Bilbo, UPV/EHU, 1987, 31-52.
- , 1988, *Über Aspiration. Ein Kapitel aus der natürlichen Phonologie*, Tübingen, Gunter Narr Verlag.
- , 1991, “Sobre la reconstrucción del euskera: Observaciones a Trask”, in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum* (= *ASJU*-ren Gehigarriak, 4), II, Donostia, 607-613.
- Iverson, G. K., 1985, “Grassmann’s Law in Indo-European”, *Folia Linguistica Historica* 6: 2, 203-213.
- Job, M., 1995, “Did Proto-Indo-European have glottalized stops?”, *Diachronica* 12: 2, 237-250.
- Kasatkin, L. L., 1995, “Nekotorye fonetičeskie izmenenija v konsonantnyx sočetanijax v russkom, drevenerrusskom i praslavjanskom jazykax, svjazannye s protivopostavljeniem soglasnyx po naprjažennosti / nenaprjažennosti”, in *Sovremennaja russkaja dialektnaja i literaturnaja fonetika kak istočnik dlja istorii russkogo jazyka*, Mosku, Nauka, 1999, 246-264.
- Klyčkov, G. S., 1989, “Teorija verifikacii v sravnitel’no-istoričeskom jazykoznanii”, in V. N. Jarceva (arg.), *Teorija i metodologija jazykoznanija. Metody issledovanija jazyka*, Mosku, Nauka, 90-189.
- Ladefoged, P., 1982, *A Course in Phonetics*, 2. argitalpena, New York, Harcourt.
- Lafon, R., 1958, “Contribution à l’étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)”, in Lafon 1999: 113-133.
- , 1973, “La langue basque”, in Lafon 1999: 3-55.
- , 1999, *Vasconiana* (= *Iker*-11), Bilbao, Euskaltzaindia.
- Lakarra, J.A., 1995, “Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root”, in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 189-206.
- , 1996a, *Refranes y sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*, Bilbao, Euskaltzaindia.
- , 1996b, “Sobre el Europeo Antiguo y la reconstrucción del Protovasco”, *ASJU* 30: 1, 1-70.
- , 1997, “Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa”, *ASJU* 31: 2, 537-616.
- Lapesa, R., 1981, *Historia de la lengua española*, 9. argitalpena, Madril, Gredos.

- Martinet, A., 1950, "De la sonorisation des occlusives initiales en basque", *Word* 6: 1, 224-233.
- , 1970, *Économie des changements phonétiques*, 3. argitalpena, Paris, A. Francke.
- , 1981, "La phonologie synchronique et diachronique du basque", in *Iker-1: Euskalarien nazioarteko emanaldiak*, Bilbao, Euskaltzaindia, 59-72.
- Menéndez Pidal, R., 1923, "Influjo del elemento vasco en la lengua española", in *En torno a la lengua vasca*, Buenos Aires, Espasa-Calpe Argentina, 1962, 59-71.
- Meyer, G., 1896, *Griechische Grammatik*, 3. argitalpena, Leipzig, Breitkopf & Härtel.
- Michelena, L., 1950, "De fonética vasca. La aspiración intervocálica" (= *SHLV*, 190-202).
- , 1951a, "De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas" (= *SHLV*, 212-219).
- , 1951b, "La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet" (= *SHLV*, 203-211).
- , 1957, "Las antiguas consonantes vascas" (= *SHLV*, 166-189).
- , 1957-58, "A propos de l'accent basque" (= *SHLV*, 220-239).
- , 1964, *Textos arcaicos vascos*, Madril, Minotauro.
- , 1971, "Egunak eta egun-izenak", (= *PT*, 269-282).
- , 1974, "El elemento latino-románico en la lengua vasca" (= *PT*, 195-219).
- , 1977a, *Fonética histórica vasca*. 2. argitalpena, San Sebastián, Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo, Diputación Provincial de Guipúzcoa.
- , 1977b, "Notas sobre compuestos verbales vascos" (= *PT*, 311-335).
- , 1979a, "La langue ibère" (= *LH*, 341-356).
- , 1979b, "Miscelánea filológica vasca. III. (1. La letra *h* en los *Refranes y Sentencias* de 1596)" (= *PT*, 413-433).
- , 1982, "Sobre la lengua vasca en Álava durante la Edad Media" (= *PT*, 169-181).
- , 1985, *Lengua e Historia [LH]*, Madril, Paraninfo.
- , 1987, *Palabras y textos [PT]*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca [SHLV]*, I (= *ASJU*-ren Gehigarriak, 10), Donostia-San Sebastian.
- Moravcsik, E. A., 1978, "Reduplicative constructions", in J. Greenberg et alii (arg.), *Universals of human language*, III, Stanford, Stanford U. P., 297-334.
- Múgica, M., 2000, "Notas de fonética histórica (II). Finales en *-(i)ano*, *-(i)one*, *-inda*", *ASJU* 34: 2, 397-412.
- Reuse, W. J. de, 1981, "Grassmann's Law in Ofo", *IJAL* 47, 243-244.
- Rijk, R. P. G. de, 1963, "Compte-rendu de Luis Michelena: *Fonética histórica vasca*", in *De lingua vasconum: Selected writings*, Bilbao, UPV/EHU, 1998, 1-11.
- Salmons, J., 1991, "Motivating Grassmann's Law", *Historische Sprachforschung* 104, 46-51.
- Schwyzer, E., 1977, *Griechische Grammatik*, 5. argitalpena, München, C.H. Beck Verlag.
- Sihler, A. L., 1995, *New Comparative Grammar of Greek and Latin*, New York-Oxford, Oxford U. P.
- , 2000, *Language History. An Introduction*, Amsterdam-Philadelphia, John Benjamins.
- Trask, R. L., 1985, "On the reconstruction of Pre-Basque phonology", in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 885-891.
- , 1995, "Origin and Relatives of the Basque Language: Review of the evidence", in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 65-99.
- , 1996, *Historical Linguistics*, London-New York-Sydney-Auckland, Arnold.
- , 1997, *The History of Basque*, London, Routledge.
- Txillardegi [J.L. Álvarez Empananza], 1980, *Euskal fonologia*, Donostia, Ediciones Vascas.
- Whitney, W. D., 1889, *Sanskrit Grammar*, Cambridge (MA)-Londres, Harvard U. P., 1975.